

Goienkaria


ASTELEHENEKO

2007ko irailaren 24a > Astelehena > III. urtea > 159. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Produktzio sistemak behar duen langileria prestatzen du Lanbide Heziketak"

Pello Arrondo
Miguel Altuna
Institutua > 06



G2a

'Bertso-raperoak' antzezlanak > 23

BIDEGORRIAK

Bi zati inauguratuta, ibarrerako asmo gehiago ditu Aldundiak > 02-03

ARAMAIO

Euskal Herriko Ipuin Kontalarien Festa egin zuten zapatuan > 09

KIROLA

Zugasti oñatiarra, bigarrena 4x4 ibilgailuen kontzentrazioan > 21

KIROLAK > ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

Zuhaitz Ezpeletak, ezusteko hirugarren tokia Zegaman

USTEKABEAN Espero ez zituen postua eta denbora lortu zituen Arrasateko korrikalariak atzoko maratoian

EUSKAL KOPA Atzoko postu bikainari esker, Mendiko Lasterketen Euskal Kopa ere irabazi zuen Ezpeletak

IRABAZLEA Lleidako 18 urteko Kilian Jornetek irabazi zuen Zegama-Aizkorri maratoiaren seigarren aldia > 15



Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra. M.B.

Joxe Mari Jauregik artzain txakur lehiaketa irabazi du, laugarrenez

Oñatiko Santa Lutziako zelaian, 48. Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa jokatu zuten. Hamabi artzainek parte hartu zuten euren txakurrekin: bi Iparraldekoak, Tarragonako beste bat, Castelloko bat eta gainontzeko zortziak, Hego Euskal Herrikoak.

Hiru ariketa egin ostean, eta guztietan lortutako puntuak batuta, Arabako Illarduia herriko Joxe Mari Jauregik irabazi zuen txapelketa 301 punturekin. *Bizkor* txakurra eroan zuen Oñatira, eta atzokoarekin, lau sari lortu dituzte bien artean. > 04



PODIUMA Txapelduna eta txapeldun-ordeak, Oñatiko podiumean: Joxe Mari Jauregi, Fidel Alonso eta Pierre Pomies.

JOSETXO ARANZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-28
Saillatuak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

KULTURA > ELKARRIZKETA

'Klikowsky' Elgetan egon zen

Mi querido Klikowsky tele-saileko Martin Gervasoni protagonistak *Bang, bang, y somos historia* antzezlanak aurkeztu zuen Elgetan. Bera-ekin berba egin dugu. > 26

OSASUNA > GRIPEA

Gripearen aurkako txertoa har daiteke gaurtik hasita

Osasun Sailak gaur, astelehena, zabaldu du aurtengo gripearen aurkako kanpaina. Hortaz, gaur hasi eta urriaren 31ra bitartean, 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoak dituzten adin horretatik azpikoei txerto hori hartzea gomendatzen diete.

Horretarako, ohiko osasun zerbitzuan txanda hartu behar da. Herri batzuetan, nagusien egoitzetan eta auzoetan ere ibiliko dira txertoa ipintzen.

Osasun arduradunen esanetan, aurten, ia zoko antzeko birusa espero da. > 05

KULTURA > ZINEMA

Arregiren 'Lucio', Zinemaldian

Aitor Arregi oñatiarrak Jose Mari Goenagarekin egindako *Lucio* dokumentala atzo, domeka, estreinatu zuten Donostiako Zinemaldian. Gaur berriz emango dute. > 27

MUGIKORTASUN IRAUNKORRA > BIDEGORRIAK

Bide gehiago, bizikletaz eta oinez seguru ibiltzeko

BIDEGORRIAK Izendapen hori erabiltzen da motordun ibilgailuendako ez diren bideak izendatzeko; oinezko eta bizikletendako dira, gehienetan

ARETXABALETA Egubakoitzean, bi bidegorri zati inauguratu zituzten ibarreen; Aretxabaleta Arrasate eta Eskoriatzarekin lotzen dute

ATZERAPENAK Bergaratik Antzuolara arteko zatiko lanak 2008. urtearen amaierara atzeratuko dira, uren arloko beste obra batzuk direla-eta

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea izan da amaitu berri dena. Batean eta bestean, herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak eta kanpainak egin dira, eta gure ibarreen ere ez da horrelakorik falta izan: autoak ez ibiltzeko kaleak itxi, bizikleta mar txak, erakusketak... Maiz, horrelako datek aitzakia egokia ematen dute gai zehatz batzuen gainean berba egiteko. Bidegorrien gaia da horietako bat.

Bidegorri izendapenak zalan tzak sortu ohi ditu maiz jendearen. Sarritan, ez dakigu zeinendako diren, denek gorriak izan behar duten... "Izena dator bizikletendako egiten ziren bideei ematen zitzaizen koloretik. Beste bide batzuetatik ezberdintzeko egiten zen hori, eta baita segurtasun neurri modura, espaloietatik bereizteko, besteak beste. Baina bidegorri izendapena erabiltzen da motordun ibilgailuendako ez diren bideak izendatzeko", azaldu digu Gipuzkoako Foru Aldundiko iraunkortasun teknikari Beatriz Martikorenak.

Hala ere, oinezko eta bizikletendako bideen baitan, hainbat bide mota dagoela ere argitu digu Beatriz Martikorenak: "Ezagunenak mistoak dira, oinezkoak eta txirrindulariak ibiltzen direnak. Noiz edo noiz, baina oso gutxitan, baliteke motordun ibilgailuren batek zeharkatzea bide horiek eta, oinezkoen artean, umeendako aulkiekin doazenak, edo antxintxika doazenak, ere sartuko lirake. Bestalde, zabalera ezberdinekoak daude, asfaltodunak edo lurra besterik ez dutenak, oinezkoak eta bizikletak banatzen dituztenak...".

Aurrez aipatu bezala, badirudi jendeak, mugikortasun iraunkorraren harira, bidegorrien gai horri gero eta gehiago erreparatzen diola. Beatriz Martikorenaren esanetan, "beharbada guk ere, administratibotik eta erakundeetatik, azalpen egokiagoak ematen ditugulako izan liteke hori. Mugikortasun astea hartzen dugu aitzakia modura orain artean bidegorriei dagokienean egin dena eta egin nahi duguna azalertzeko. Lehen, horrelako egunak jai egun soil modura hartzen ziren, baina orain, ekintzak agerian daude, eta horrela, norbanakook ere, gure aldetik, zerbait egin genezake".



INAUGURAZIOA Aretxabaletan bi zati inauguratu zituzten egubakoitzean; ezkerrean, Carlos Ormazabal Mugikortasun diputatua, alkatearekin.

TXOMIN MADINA

IBARREKO BIDEGORRIAK

Gipuzkoan, dagoeneko 141 kilometro bidegorri daude eraikita edo eraikitzean. Debagoienean ere badira bidegorriak, baina bizi-

kleta oraindik urruti dago garraio bide alternatibo izatetik. Izan ere, ibilbide laburrak dira gehienetan, herri barrukoak eta jendeak aisialdirako edo kirole-

rako erabiltzen dituenak, komunikaziorako baino gehiago: Urkulu dagoena, kasurako. Hala ere, herri arteko loturak egiten ari dira, pixkanaka, bidegorri bidez.


Beatriz Martikorenak laburbildu digu ibarreko bidegorrien egoera: "Arrasatek badu bidegorria, aldenik alde zeharkatzen duena, eten txikiren bat salbu.

BIDEGORRIAK BEGIRADAPEAN


Soraluze eta Osintxu arteko bidegorrian, erabiltzaile gehien

Gipuzkoako Bidegorrien Sareko Behatokiak dagoeneko eraikita dauden herri arteko tartek aztertzen ditu: erabiltzaile kopurua, motak -oinezkoak, txirrindulariak, atletak, gurpildun aulkian doazenak...- eta hainbat ondorio atera dituzte: erabilera handia dela; eguraldiaren eta egunen arabera, asko aldatzen direla erabiltzaile kopurua eta maiztasuna; eta erabiltzaile mota asko dagoela. Aztertutako bost bideetan, bakarrak ukitzen du ibarra: Soraluze eta Osintxu artekoak. Gipuzkoan, erabiltzaile gehien dituen herri arteko bidegorria da.

Eguneroko erabiltzaileak



Urte arteko batezbesteko banaketa modala



Aretxabaletan ere, lan handia egin dute bizikletaren gaiarekin. Zatiaren bat ondo egokitu gabe bazegoen ere, jarraian, bide tarte handia zeukan, baita Eskoriatzak eta Bergarak ere. Herrietan, hainbat gauzatxo eginak zeuden; hutsunea herrien arteko komunikazioan zegoen, eta, lotuz gero, balio handiagoa dute".

ZATI BERRIAK

Herri arteko komunikazioan zegoen gabeziari aurre egin asmoz-edo, ibarrean eraiki dituzten bi bidegorri zati berri inauguratu zituzten egubakoitzean: Arrasate eta Aretxabaleta artekoa, eta Eskoriatza eta Aretxabaleta artekoa.

Aretxabaleta iparraldeko loturarekin, Arrasateretik loturarik eza konpondu dute, oinezkoak eta bizikletariak seguru eta eroso ibiltzeko moduan, behintzat. 300 metroko zatia da, eta hiru metro ditu zabaleran. Deba ibaieren eta GI-632 errepidearen artean dago. "Zatia egiterakoan, arreta berezia jarri da erriberako ingurumenean egoki bertakotu dadin. Aurrekontua 214.472 euro izan da, eta lanak bi hilabete eta erdian egin dituzte", jakinarazi digu Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko departamenduak.

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko zatia lehendik zegoen, eta oinezkoek nahiz bizikletariak erabiltzen zuten bidea zen hobekuntzak egin ostean inauguratu dutena. Aretxabaletako Udalaren proposamenez, herriko bizikleta bideak erregularizatzea du helburu tarte horrek. "Bide zorua berritu egin da, eta drainatze zein argizatze sarea ipini da. Foru Aldundiak 97.380 euro inbertitu ditu eta bi hilabete eta erdian egin da. Luzeraz 250 metro da, eta 2,40 metroko bidea dauka oinezkoentzat, eta 1,60 metrokoa, berriz, bizikletariarentzat", azaldu digu Foru Aldundiak.

ETORKIZUNEN ASMOAK

Baina hori hasiera besterik ez dela esan digu Beatriz Martikorenak: "Falta zaigu iristea Bergarara, Arabako mugara, Oñati- eta Antzuolara". Horiek dira,

hain zuzen ere, Foru Aldundiak etorkizunerako dituen bidegorrien gaineko hainbat asmo.

"Eskoriatzatik mugara arteko zatiaren proiektua idatzita dago, eta Errepide Sailarekin batera bultzatzen ari gara Foru Aldundian. Izan ere, proiektua lotuta dago Maltzaga-Urbina errepideko lanekin. Egin, egingo da, baina, beharbada itxaron egin behar da autobideko lanak amaitu arte, bide batzuk erabiltzen ari direlako obretarako".

GATZAGAN, IRADOKIZUNAK

Bide zati hori dela eta, Gatzagako Udalak hainbat iradokizun aurkeztu ditu. Horren gaineko azalpenak eman dizkigu Eusebio Villar alkateak: "Nahiz eta guk aurreproiektuaren gaineko iradokizunak egin, proiektua bera aurrera doa. Eskatu duguna da errespetatzen egun dauden bideak eta erabilera ohiturak. Bestalde, Gatzaga gainean, ugazabekin akordioa egina genuen, eta hori errespetatzea ere eskatu dugu. Gure Ametsa jatetxearen aldamenetik bertatik pasatuko litzateke bidea, gertuegi aukeran; beraz, egin genuen plano bat, eta horren bidez eskatzen da etxearen parean mendi alderantz egitea bidea, eta gero, lehengo trenbidera joatea berriz. Bideak eginda daude, besteak beste, pinuak ateratzeko, eta bidegorriarekin, ez dakigu nola geratuko den. Guk eskatzen duguna da lehenetsuna ematea egun dauden

Aretxabaletako iparraldeko zatia egitean, arreta jarri da erriberako ingurumenean

Gatzagan, eskatu dute, bidegorria egitean, errespetatzen egungo bideak eta erabilera

Errepide nagusien aldamenetik doazen bidegorriak eraikitzea ezinbestekoa da Foru Aldundiarendako

bideei, bidegorria egin aurretik. Bidegorria bertatik pasa behar bada, pasa dadila, eta ondo hartuko dugu, baina betiere, errespetuz eta modu egokian".

Bestalde, Bergarako San Antonio auzotik Antzuolara arteko bidegorriaren proiektua amaitzen ari dira. "Herri arteko bidea litzateke, kota baxuan kokatua. Baina oraindik ez dugu eraikiko, izan ere, Eusko Jaurlaritzako uren arloko obra batzuekin bat dator. 2008. urtearen amaierarako egitea aurreikusuten dugu", dio Martikorenak. Bergara, Deskarra eta Urretxu arteko bidea kontratatua dute. FEVEri (Espainiako Trenbide eta Trenak) lurra erosi dizkiote, eta nahi dute, zatika bada ere, lanak egitea.

Oñatin ere, aurrerantzean lanak egiteko asmoa dute. "Azken finean, bidegorriak egiteko lanak ahalik eta arinen egiteko ahalegina egingo dugu. Tranbia ere hartu behar dugu kontuan, eta bai tranbiarendako eta baita bidegorriendako zatiak aurreikusita dauden arren, zailagoa da bateatzea", esan digu Beatriz Martikorenak.

BEASAINERA ARTE

Horiek herri barruko zein gertuko herrien arteko bidegorriak lirateke, baina, Beatriz Martikorenak azaldu digunez, bada asmoa Bergara eta Beasain bidegorri bidez elkartzeko: "Zumarraga arteko zatia kontratatuta dago, eta gero, Beasain artekoa egingo

litzateke, zeharkako ibilbidea. Gipuzkoan, zailagoa da zeharkako ibilbideak egitea eta, egingo bada, neurri handi baten, garai baten trenbidea egon zelako da; bestela, sortu egin behar litzateke, eta obra handia litzateke".

Egitura horrek funtzionatu-ko balu eta erabiltzaileek joera hartuko balute bidegorritik joateko, beharbada, etorkizunean, garraio bide publikoen arteko loturarekin, konpondu ahal izango litzateke mugikortasun arazo, Beatriz Martikorenaren esanetan: "Alokairuko bizikletekin, esaterako, ibarretik ibarrera joateko aukera eskaintzea bide aproposa litzateke".

KONTSULTAK SAREAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak bizikletaren erabilera bultzatzeko konpromisoa hartu du eta, besteak beste, sarean ipini ditu bizikleten gaineko hainbat jakinarri: modalitateak, mantentzeko trikimailuak, gomendioak... Bizikletaz Gipuzkoan barrena ibilbideren bat egin nahi dutenek ere bidegorrien bistaratzailerak aurkituko dute Interneten, bidearen ezaugarrien, inguruaren zein zailtasunaren arabera aukeratzeko. Honako helbidean aurki daiteke informazio hori guztia: www.gipuzkoabizikletaz.net.

ERAKUSKETA ARRASATEN

Sare bitartez ez ezik, erabiltzaileek zein interesa dutenik izan dute gurean bidegorrien gaineko informazioa beste modu bate-ara jasotzeko aukerarik. Arrasaten, erakusketa eta hitzaldia egin dituzte. "Erakusketa egin da jendeak ikus dezan daudela herrietako planak, ibarrekoak eta EAEkoak. Beharbada, ohituta gaude ikustera herri barruko kaleak eta errepideak, baina ez horrenbeste herri arteko zein herri barruko bidegorrienak. Errepide nagusien aldamenetik doazen bidegorriak eraikitzea ezinbestekoa da herri arteko komunikaziorako arrakasta izan dezaten", dio Aldundiko teknikariak.

Autoak nagusi diren honetan, herrien artean mugitzeko beste modu eta bideak bultzatzen dituenik bada; erabiltzea da kontua.

BIZIKLETAZALEAK

Bizikletan seguru ibiltzeko bideak aldarrikatzen ditu Txirrinkak

Bizikletazale batzuek eraginda, Txirrinka taldea sortu zen Oñatin, eta euren eskari nagusia da bizikletaz segurtasunez ibiltzeko lekuak egotea. "Gaur egun, jende askok nahi luke bizikletaz joatea lanera edo ikastetxera, baina, auto artean ibiltzeko beldurrez, bizikleta etxean uzten dute. Gure nahia da egin ditzatela ibilbideak oinezko eta bizikletendako; edo, egin ezin diren lekuetan, autoen abiadura murriztu dezatela, elkarrekin joateko beti bizikletadunak eta oinezkoak, inor kaltetu gabe", diosku Txirrinka taldeko kide Migel Angel Letamendik.

Oñatin eskatu dute ibilbide batzuk gertatzea gutxieneko segurtasun mailarekin. "Aurreko agintaldian aurkeztu genuen txostena, besteak beste, esanez

jendeak bizikletaz nondik nora joateko interesa edukiko lukeen. Ondoren, teknikarien lana litzateke proiektua gertatzea. Lan hori eskatuta dago, baina sumatu dugu ez dagoela proiektuak aurrera egin dezan interesik", dio Letamendik.

Txirrinkakoen ustez, garrantzitsuena da bizikletadunen eta oinezkoen alde jokatzeko interesa edukitzea. "Mugikortasun astea eta horrelakoak aprobetxatzen dira sarritan propagandarako, baina behin hori pasatutakoan, badirudi denoi ahaztu egiten zaigula bidegorrien gaia".

Migel Angel Letamendik aurreratu digu, bizikletazaleendako bide seguruak aldarrikatzeko, datorren hilerako, bizikleta martxa antolatuko dutela.

ARRASATE, BI GURPILEN ALDE

Bizikleta azokarako jasotako materialaren %70 saldu egin zuten Seber Altuben

Irailaren 17tik 22ra bitartean, Arrasatek bat egin du Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin. Besteak beste, hiri-busean doan bidaiatzeko aukera eskaini diete herritarrei; Bide Segurtasun Hezitzaileen bilera ere izan da; herrian barrena bizikletan ibiltzen ikasteko praktikak egin dituzte; baita mugikortasun eta irisgarritasun tailerra ere. Gainera, bizikleta bideen plana jendaurrean azaltzeko erakusketa eta aurkezpena ere izan dira.

Bestalde, irailaren 22an eta 23an, Autorik Gabeko Egunaren aitzakian, bizikletak izan dira Arrasateko kaleetako errege. Zapatuan, bigarren eskuko bizikleta azoka izan zen Seber Altube plazan. Askotariko gauzak ipini zituzten salgai: 40 bizikleta inguru -15 euro eta 500 euro bitartekoak-; eskularruak, kaskoak, patinak, patineteak, bizikletak eramatekoak, bizikletako aulkia, umeendako aulkia eta betaurrekoak. Azokara jende asko gerturatu zela esan digute antolatzaileek, eta jasotako materialaren %70 saldu zuten, gutxi gorabehera.

Domekan, bizikleta ibilaldia egin zuten Arrasateko Aretxabaletara bitartean, eta, Arrasatera itzulitakoan, parte-hartzaileen artean zozketa egin zuten. Beste urte batzuetan baino jende gutxiago animatu arren, 150 lagun inguru ibili ziren bizikletaz herrian barrena eta inguruetan.



Bigarren eskuko bizikletak izan ziren nagusi azokan; osagarriak ere ipini zituzten salgai.

JOSETXO ARANZABAL

ARTZAIN TXAKURRAK > NAZIOARTEKO TXAPELKETA

Joxe Mari Jauregik laugarren txapela lortu du 'Bizkor'-ekin

Iaz eta orain bi urte ere, Jauregik irabazi zuen, baita orain lau urte ere; txakurrak zortzi urte ditu eta bera izan da Santa Lutziako onena

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Oñatin, Santa Lutziako zelaian, 48. Nazioarteko Artzain Txakuraren Txapelketa jokatu zen atzo, domeka. Hamabi artzainek parte hartu zuten euren txakurrekin: Castellotik etorritako bat, Tarragonatik beste bat, bi Iparraldeko, eta gainontzekoak, Hego Euskal Herrikoak. Txapela Arabako Illarduiatik etorritako Joxe Mari Jauregik irabazi zuen, *Bizkor* txakurrarekin.

Ez zen lehia erraza izan. Hiru ariketa egin behar izan zituzten: lehenengoan, hiru minutuan, epaimahaiak izendatutako bi lekutan gelditu behar zuten artzainak txakurra, eta, gero, astiro sartzeko agindua eman.

Proba amaituta, zortzi txakur pasatu ziren bigarrenera: *Bizkor*, *Txiki*, *Izar*, *Aurki*, *Txiki*, *Nuca*, *Uso* eta *Scott*. Artaldea zegoen lekutik hartu eta zelai barrenean jarritako makila baten

ondora ekarri, eta, bertan, txakurra eta artaldea gelditu, eta jarraian, eskumako ala ezkerreko hesi artetik pasatu behar izan zuten sei minutuko denboran.

Lau txakurrek eskuratu zuten hirugarren ariketarako txartela: *Bizkor*, *Aurki*, *Uso* eta *Scott*-ek.

SARIDUNAK

Jauregiren txakurra, *Bizkor*, izan zen erregularrena eta finena: 301 punturekin irabazi zuen. Bigarren, Areta-Llodiolik etorritako Fidel Alonsoren *Aurki* geratu zen, bi puntu gutxiagorekin.

Hirugarren, Pierre Pomiesen *Uso* geratu zen, eta laugarren, Pascal Cacheuren *Scott*.



SARIA Jauregi, Lurdes Idoiaga alkatearen eskutik saria jasotzen. JOSETXO ARANZABAL

Jose Luis Madinagoitia >
Arizmendiarrietaren Lagunak

"On Jose Mariaren ideia sozialak gaur egunera egokitu nahi ditugu"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Aurkeztu berri dute Arizmendiarrietaren Lagunak elkarteak, joan den egunean egin zuten ekitaldia Aretxabaletan; baina martxoaz geroztik zebiltzan lanean. Elkarrekin idazkari Jose Luis Madinagoitia Arrasate Irratian elkarriketatu zuten. Bestetik, zapatuan, batzarra egin zuten elkarrekin. Elkarrengaineko argibideak eman dizkigu.

Herenegun, ohiko batzarra izan zenuten. Zelan joan zen?

Espero bezala: Zuzendaritza Batzordeak egindako lanaren berri eman zen; elkarrekin jarraitu beharreko antolakuntza erduaz jardun genuen; urteko gestioa eta kuota onartu ziren... 27 lagun joan ziren. Interesgarria izan zen, jendeak galderak eta egin zituelako, asko.

Elkarrekin egunean aurkeztu, baina martxoan sortu zenuen, ezta?

Bai. Orduan egin genuen sorrera batzarra. 48 bazkide ginen; orain, 62 gara. Harrezkeror, zuzendari batzordea izendatu dugu bi urterako, lan batzuk egiten joan gara, estatutuak egin ditugu, elkarrekin ofizial egin dugu...

Zelakoa da elkarrekin?

Interesatuta gaude gaurko enpresan On Jose Maria Arizmendiarrietaren humanismo baloreak aplikatzean. Elkarrekin ez du irabazi asmorik, akonfesionala da, eta independentea da beste edozein erakunde publiko edo pribaturekiko.

Bestalde, denei irekia dago. Elkarrekin sortu genuenean baino bazkide gehixeago gara, baina oraindik gehiago behar ditugu, eta edonongoak izan daitezke, bailarakoak zein kanpokoak.

Zein da Arizmendiarrietaren Lagunen misioa?

Hiru ardatz ditu elkarrekin. Lehenengoan On Jose Mariaren irudia bizirik gordetzea da, bere biografia, humanismo baloreak, bere ideario soziala... kooperatibismoaren proiektua bide horretatik joan zelako, hain zuzen ere.

Bigarren ardatza da gogoeta egitea Arizmendiarrietaren ideia sozialak nola egokitu gaur egunera. On Jose Maria Arrasatera iritsi zenetik, gizarte bestelakoa da eta baloreak aldatu egin dira, eta ideia sozial haiek eguneratu gura ditugu; horixe da guretzat helbururik garrantzitsua.

Azkenik, hirugarren ardatza da elkarrekin elementu bateratzailer egitea: kooperatibismoa ibili diren



Jose Luis Madinagoitia.

TXOMIN MADINA

pertsonen, unibertitatean ibili direnek... zer ekarria dutenek elkarrekin lan egiteko tokia izan dadila gure elkarrekin.

Hori guztia gero praktikara eramanez gura duzue?

Gurako gure ideia horiek kontzeptualki lantzea; enpresa eta erakunde bakoitzak bere ardurak ditu, eta norberak ikusiko dugu zelan lan egin; gu ez gara sartuko norberak bere enpresa zelan eramanez behar duen.

Zer egin behar du bazkide egin gura duenak?

Gure asmoa da proiektua prentsa bidez zabaltzea, eta bazkide moduan parte hartu gura duenarenak, posta helbidea eta posta elektronikoa dauzkagu, eskaera egiteko. Helbidea hau da: Arizmendiarrietaren Lagunak; Goi Eskola Politeknikoa, Loramendi 4, Arrasate; eta posta elektronikoa, amigos-jma-lagunak@googlegroups.com helbidea mezua bidalita.

HEZKUNTZA

Euskadiko Bide Hezkuntzako batzarra

Arrasaten batu ziren 30 bat hezitzaile, bide hezkuntzako curriculum egiteko

UBANE MADERA > ARRASATE

Euskadiko Bide Hezkuntzako hezitzaileak Arrasaten batzartu ziren egun eta egubakoitzean. Udaltzainak, ertzainak, formazio enpresako kideak, Eusko Jaurlaritzako teknikariak eta bestelako teknikariak etorri ziren, 30 bat.

Bide Hezkuntzako Euskadirendako curriculum lan-tzen ibili ziren. Agiri hori Euskal Autonomia Erkidegoko edozein instituzio edo erakunde prestatutako edozein bide-hezkuntza proiektu garatzeko oinarria izatea gura dute.

Bide hezkuntzari dagokionez, hezkuntza mota horren helburua da herritarrek heztea zirkulazio istripuek eragiten dituzten giza, eta ekonomia ondorioei aurrea hartzeko eta, gertatu ondoren, euren ondorioak txikiagotzeko.

Bide hezkuntzako hezitzaileak otsailaz geroztik dabilta curriculum hori lantzen. Orain arte batzarrak egin dituzte Gasteizen eta Hernanin eta, egun eta egubakoitzean, Debagoiengan.

OSASUNA > GRIPEA

Gripearen aurkako txertoa har daiteke gaur hasi eta urriaren 31ra bitartean

Iazko birus berbera aurreikusten dute osasun arduradunek, eta horretan oinarritu dira txertoa egiteko; gure zonaldean, 48.500 banatu dituzte

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Gaur, astelehena, hasi da aurtengo gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Gaurtik urriaren 31ra arte, 65 urtetik gorako guztiek edo gaixotasun kronikoren bat -diabetesa edo bihotzeko, biriketako, giltzurruneko... gaitzen bat- duten adin horretatik beherako guztiek txertoa hartzeko aukera dute, eta Osasun sailko arduradunek horixe egitea gomendatzen diete.

Horretarako, norbere herriko osasun zentroan txanda hartu behar dute. Bestalde, Arrasaten dagoeneko jakinarazi dute nagusien egoitzetan eta auzoetako alkatetza lokaletan egongo dire-



ARRISKU HANDIENA 65 urtetik gorakoek hartu behar dute txertoa.

JOSETXO ARANZABAL

la urriaren 1etik 5era bitartean, txandaka. Helburua da gutxienez 65 urtetik gorakoen %70 txertatzea; iaz, %69 txertatu zuten.

ZAINTZAILEEK ERE BAI
Gipuzkoa Mendebalde osasun zonaldean sartzen da Debagoiena. Zonalde horretarako gripe

kanpainaren arduradun Arantxa Urruzolak dioenez, aurtengo 48.500 txerto banatu dituzte dagoeneko zonalde horretan, batzuk

herritarrendako eta beste batzuk zainzailleendako, eta iazko birus berberean oinarrituta egin dituzte aurtengo txertook.

LABUR

> **TXERTO KANPAINA**

Gaur, irailak 24, hasi da, eta urriaren 31ra arte iraungo du.

> **NORI ZUZENDUTA**

65 urtetik gorakoek eta gaixotasun kronikoren bat dutenek hartu beharko dute txertoa.

> **ZER EGIN**

Norbere osasun zentroan edo medikuarekin txanda hartu behar da txertoa hartzeko.

> **BIRUSA**

Iazko birus berbera aurreikusten da aurtengo, eta horretan oinarritu dira txertoak prestatzeko.

> **ZENBAT**

Gipuzkoa Mendebaldeko (54 osasun zentro) 48.500 txerto banatuta daude; kanpaina bukaerarako, 50.000 izango dira.

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Focus Coupe Trend 1.6 100 ZP. Prever Plana, BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. TIN: %0. Finantzatze gehieneko prezioa: 8.000 euro FCE Bank Plc-k eskaintutako finantzaketa; Espainiako sukurtsala. Ford España SLk diruz lagundutako interesak. Eskaintza baliagarria irailaren 30 arte. REBE zenbakia: 07/35705. Kontsumoa: 4,7-9,3 l/km. CO2 emisioak: 125-224 g/km. Ikusten den modeloa ez da eskaintzen dena

Irabaztea zer den sentitu

Orain, Focus 12.900 €-tik aurrera

Aire girotua, ABS, CD-irratia eta barruko ordenagailua.

eta gainera

%0 ko UTB

24hilabeterako finantzaketan 8.000€ arte.



MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



Ikaslea gizar-tean eta enpre-
tan eskaerarik handiena eta
etorkizun oparoa duten lan-

postuetarako prestatzea da Lan-
bide Heziketaren helburua. Per-
tsonaren bizitza aktibo osoko

heziketa prozesua da gainera.
Mota honetako heziketa eskain-
tzen duten ikastetxeak asko

dira, eta gure ibar-rean ere bada-
go Lanbide Heziketako sisteman
barneratutako zentrorik.

Pello Arrondo > Miguel Altuna Institutuko ikasketa burua

"Helburua da gure produkzio sistemak behar duen langileria prestatzea"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Pello Arrondo lan orientazio eta prestakuntzako irakaslea da Bergarako Miguel Altuna Institutuan eta ikastetxeko ikasketa burua ere bada. Ikasturtea hasi berri den honetan, Lanbide Heziketaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Zer da Lanbide Heziketa?

Irakaskuntza mota bat da, eta lanerako prestatzen ditu ikasleak, nahiz eta aukera daukaten bestelako ikasketekin jarraitzeko ere. Beste ikasketen ikuspegi bakarra da goragoko ikasketa batzuetarako prestatzea.

Ibar-rean, ikasle askok aukeratzen du Lanbide Heziketa?

Estatistiken arabera, gero eta gehiago, baina Europako kopuru-etatik nahiko urrun gaude. Unibertsitateak pisu handiagoa du.

Zergatik egin dira Lanbide Heziketa bultzatzeko kanpainak?

Beharra dagoelako. Gaur egun, zailtasunak daude inguruko enpresek eskatzen duten langile beharrari erantzuteko. Hortaz, kanpainak egin behar ditugu, inguruko produkzio sistemak behar duen langileria lortzeko. Zenbait sailetan, ikasleen %100ekoa da okupazio tasa, eta beste zenbaitetan, %90era iristen da. Industria gunean gaude, eta erraminta makinak garrantzia duenez, fabrikazio mekanikoak behar horri erantzuten dio.

Gurean, zein eskaintza dago?

Gehienbat, fabrikazio mekaniko, elektrizitate eta elektroniko eta administrazio saileko zikloak daude. Bestalde, gizarte zerbitzuetara zuzendutakoak, kimikakoak, informatikakoak, erizaintzakoak, ezinduen laguntzakoak... ere badaude, baina betiere, proportzio txikiagoan.

Lana bilatzeko erraztasuna da ikasleek Lanbide Heziketa aukeratzeko arrazoia?

Hori izan daiteke arrazoi-etako bat, baina Lanbide Heziketaren beste ezaugarri batzuk ere. Lanbide Heziketan, arlo teorikoa dago, baina praktika da nagusi. Denetarik ikasleak daude, eta batzuek erraztasun handiagoa daukate teoria ikasteko, eta beste batzuek, eskulanetarako. Lanbide Heziketan, arlo teorikoaren pisua ez da hainbestekoa; hortaz, ikasle batek teoriarako izan arren, praktikan abila bada, erosoago eta gusturago senti liteke.



Pello Arrondo, Miguel Altunako eskaintza erakusten duen pantaila baten aurrean.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ohituraz-edo, Lanbide Heziketa ikasle txarrendako irten-bidea zela esan izan da.

Administrazioek eta ikastetxeek ahalegina egin dute eta gizar-teak onartu du Lanbide Heziketaren balioa. Inguruko produkzio sarea ase du Lanbide Heziketak, eta aberastasuna produkzio horretatik dator. Hortaz, begiratu behar da zein behar dauden inguruan, eta ikasleak zer nahi duen. Ikaslea saiatu behar da bizi den gizar-tean ahalik eta egokien txertatzen. Gurera gero eta gehiago etortzen dira Unibertsitateko ikasketak egin ondoren. Kooperatiba asko dauzkagu inguruan, eta Unibertsitateko karrera amaitu eta lanik ez dutenek edo inguruko enpresa batean sartu nahi dutenek bide hau aukeratzen dute. Emakumeak ere gero eta gehiago dira; garai batean, ikasketak utzi dituztenak, eta hezkuntza jaso eta lan munduan sartu nahi dutenak.

LANGILERIA

"Zailtasunak daude inguruko enpresen langileria beharrari erantzuteko"

UNIBERTSITATEA

"Gero eta ikasle gehiago etortzen dira Unibertsitateko ikasketak egin ondoren"

EUSKARA

"Lanbide Heziketan, euskarazko materiala falta da, baina gero eta handiagoa da presentzia"

Lehen, Lanbide Heziketa lotzen zen zikinarekin, buzoarekin eta indarrarekin. Gaur egun, makinek ordezkatu dute indarra, babes neurriak daude, tailer batzuetan bata zuriak erabiltzen dituzte... Garai bateko estereotipoak apurtzen ari dira.

Zertan da Jaurlaritzak Lanbide Heziketarako prestatu duen plana?

Helburua da gure produkzio sistemak behar duen langileria izatea. Bestalde, merkatua aldatzeko delako kontuan hartuta prestatu behar ditugu ikasleak, edozein unetan beste zerbaitegiteko gai izan daitezen.

Horrez gain, oinarritu behar gara bizitza osoan zehar jasotzeko irakaskuntzan. Teknologia berrietara egokitutako heziketa eman behar dugu; bestalde, enpresaren eta ikastetxearen artean harreman sendoa egon behar da; eta garrantzitsuak dira

baita ere emakumearen laneratzeta tasa handitzea eta hizkuntza-ren normalkuntza.

Teknologia berriek zein garrantzi dute Lanbide Heziketan?

Gure makinak oso garestiak dira eta, horretarako, garrantzitsua da administrazioaren zein enpresen laguntza. Gure ikastetxean, enpresen dirulaguntzarekin muntatu genuen tailerra. Enpresak konturatzen dira, ikasleek egungo makinekin ikasten badute, ez daukatela ondoren enpresan beste prestakuntzarik eman beharrik eta, alderantziz, langileak eskolara bidaliz gero ere, teknologia berriekin ikasiko dutela. Gainera, ikasleek e-posta, zerbitzaria, emaitzak Internet bidez zein sakelaketatik jasotzeko aukera... dituzte ikastetxean.

Enpresekiko lotura nolokoa da?

Heziketa ziklo guztiek praktikak dauzkate. 400 ordu enpresan egin ezean ikasleek ezin dute titulurik jaso. Enpresan tutore bat daukate eta, han, bera arduratuko da ikasleak praktikan jar dezan ikastetxean ikasitakoa. Bestalde, enpresetako langileek gaurkotzea behar badute, horren arabera heziketa ematen diegu. Gainera, inguruko enpresek duten beharren arabera heziketa ematen diegu langabeei.

Zein pisu dauka euskarak Lanbide Heziketan?

Gero eta handiagoa. Baina zailtasun nabarmena da euskarazko material falta, argitaler-txeendako ez delako errentagarria. Hala ere, gurean, hainbat enpresatan, euskara planak abian dira, eta gure helburua da gurean ikasketak euskaraz egiten dituztenek lantokian euskara erabiltzen jarraitzea.

Etorkizuneko Lanbide Heziketako ikastetxe bat nolokoa aurreikusten da?

Malgua; teknologia berrien erabilera guztiz eguneratua izango duena; mistoa, hau da, gai batzuk ikastetxean ikasi behar dira, eta beste batzuk, etxetik; enpresa eta ikastetxea bat izango dira; sexu bereizketarik ez da izango; euskararen erabilera handiagoa izango da; eta era berean eleanitza izango da nazioarteko dinamikan bizi garen heinean beharrezkoa delako etorkizuneko langileak eleanitzak izatea; eta azkenik bizitza osorako filosofian oinarritutako ikastetxea

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Gripearen kontrako txertoa, gaurtik aurrera

Gaurtik, astelehena, urriaren 31ra arte luzatuko da kanpaina. 65 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta asteen auzoetako zaharren egoitzetara hurreratuko dira txertoa jartzera, 12:00-13:00 ordutegian. Urriaren 1ean, San Andres auzora joango dira; urriaren 2an, Abaroara; urriaren 3an, Urribarrira; 4an, Santamainara, eta 5ean, Musakolara.

ARETXABALETA

> Dantza egiptiarren gaineko ikastaroa

Urriaren 3an hasiko dira eskolak eta Gabonak bitartean iraungo dute. Eguazteno izango dira, 19:00etatik 20:30era, Kurtezbarri eskolan. Prezioa da 35 euro langileendako eta 25 gainerakoendako. Izenematea Aretxabale-tako Azkena tabernan eta Arrasateko Tatoo dendan.

ARETXABALETA

> Hainbat ikastaro Tril Emakume taldearekin

Eskulan ikastaroa urriaren 9an hasiko da. Rosa del Aguilar izango da irakaslea. Eskolak martitzenetan izango dira, 18:00-20:00. Bestalde, kakorraz-lan, patchwork, puntu eta brodatu ikastaroa ere egongo da, urriaren 10etik aurrera. Eskolak Blanca Preak emango ditu, eguaztenetan, 18:00-20:00. Ikastaroaren prezioa da 25 euro baz-

kideendako eta 50 gainerakoendako. Izena eman beharko da urriaren 2tik 8ra, Loramendin.

ESKORIATZA

> Amuskak hainbat ikastaro antolatuta ditu

Larrugintza, bainaika, margo eta eskulan ikastaroak antolatu dituzte. Hilaren 24an eta 25ean eman behar da izena, 18:00-19:00, kultura etxean.

BERGARA

> 1948an jaiotakoek aforria egingo dute

Hilaren 29an egingo dute, Zabala jatetxean. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan. Afari egunerako joan-etorriko autobusa egongo da Fraiskozuritik.

ARRASATE

> Aretoko dantzen ikastaroa Abaroan

Urriaren 3an hasiko dira eskolak. Parte hartu nahi dutenek esanda-

ko egunean azaldu besterik ez dute. Iaz bezala, eguaztenetan izango dira eskolak, 10:30-11:30.

ARRASATE

> Maritxu Kajoi eguneko luntxerako izenematea zabalik dago

Abaroak antolatzen du eta izena eman behar da hilaren 28a baino lehen. Izena emateko bazkide txartela eramane behar da Abaroako bulegora.

ARRASATE

> 1943an jaiotako emakumeen bazkaria

Urriaren 27an izango da, batzokian. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira Muruamendi-az gozotegian.

BERGARA

> Zabalik dago izenematea Xipizaro ludotekan

3 eta 12 urte arteko umeendako da. Astelehene-egubakoitzera eman daiteke izena, 10:00-20:00, zenbaki honetan: 696 15 99 24.

OÑATI

> Zabalik dago Haurreskolako izenematea

Hilaren 28ra arte egongo da zabalik. Haurtzaindegian azaroan hasitako da.

ARRASATE

> Txabilipurdik lan eskaintza egin du

Ludoteka eta gazte txokoetarako dinamizazioak behar dituzte. Arrasateko ludotekan eta gazte txokoetan lau orduko kontratuko lana eskaintzen dute; eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuolako gazteleketan aste bukaerako lana. Informazio gehiago: 943 79 54 46.

DEBAGOIENA

> AEK-k autoikaskuntza eskolak emango ditu

Ohiko eskaintza gain, autoikaskuntza eskolak ere emango dituzte Bergarako eta Arrasateko AEK-ko eskolategietan. Ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dago hilaren 27ra arte.

BERGARA

> 1947an jaiotakoek aforria Tartufo jatetxean

Irailaren 29an egingo dute, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Prezioa da 55 euro eta sarrera egin behar da hilaren 22a baino lehen Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 009.1.09901.9. Joan-etorriko autobusa egongo da -20:30ean abiatuko da Santa Marina ostetik.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Akademia Ibiltaria eta Lope Agirre

Azken bi asteotan, Lope Agirre aramaioarra izan daitekeela jakin dugu Argia eta GOIENKARIAN irakurritako artikuluen bidez. Etabaida honek joan den mendeko 50-60ko hamarkadetan Gipuzkoan sortu zen kultur talde bat ekarri dit gogora: La Academia Errante.

Lanbide eta pentsaera desberdinetako jendea bildu zuen fenomenoak: Luis Martin Santos psikiatra sozialista, Jose Kruz Jaka errekadista abertzalea, Caro Baroja edo Jorge Oteiza bezalako historiagile edo artistak. Ibarrekoak ere bai: Iñaki Zumalde eta Reyes Kor-

kostegi polifazetikoa, Oñatiko alkate frankismoaren sasoiaren, Aranzadi elkarteak eta artzain txakurren lehiaketako sortzaile, eta Korpuzi eguneko etxafuego botatzaile ofiziala.

Herriz herri biltzen ziren gai batez etabaidatzeko. Horietako batean sortu omen zen Lope araoztarra zeneko teoria.

Sasoi txarrak ziren kultura ez ofizialerako eta, Jakak kontatzen zuenez, Orexan bildu zirenean hango maistrak poliziari deitu omen zion. Azkenean, Meliton Manzanas izen eta izaera txarreko brigada sozialeko inspektorearen mehatxuek akademiaren ibilbidea moztea lortu zuten.

> Bergarrek San Martinekin duten arazoa sortu zaigu oñatiarrei. Hura bergararra ala beasaindarra ote zen urteetan etabaidan, eta marainoia oñatiarra ala aramaioarra ote den hasi behar!

> Beharbada bergarrrak bezala hasi beharko dugu, Lope eta marainoia jaietako danborradan ateratzen, horretarako bereziki egindako ereserki eta guzti, Lope oñatiarra dela garbi uzteko.

"Akademia ibiltaria herriz herri biltzen zen gai batez etabaidatzeko"

debagoiendarrak kanpoan

Almudena Tijera > Oñati

"Palman hegazkina hartu eta, ordu betean, Euskal Herrira iristen naiz"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Orain dela hamar urte joan zen Almudena Tijera Mallorcako Puerto de Alcudia herrira bizi izatera. Hango jatetxe ezagun batean dihardu sukaldari lanetan.

Nolatan joan zinen Mallorcara?

Sukaldaritzaren ikasketak amaitu nituenean ikaskide bat Mallorcara joana zen. Berak ez zuen bueltatzeko asmorik eta ni herritik irten eta esperientzia berri bat bizitzeko gogoan nuen. Etortzeko aukera izan nuen eta hementxe geratu nintzen.

Askok irlatik irten nahi du. Nolako da irlako bizimodua?

Ni ohitu naiz hemengo bizimodura. Nire lana oso gustukoa da, bikotekidearekin bizi naiz hemen eta ume bat izan behar

dugu. Lekua ere polita da: herri txiki bat da, itsasoa bertan daukana, eta, udan lan handia daukagun arren, negua oso lasaia da.

Sukaldari diharduzu, ezta?

Bai, maila handia duen Jardín jatetxean ari naiz lanean.

Oñatira sarritan etortzen zara?

Urtean bi edo hiru aldiz. Oporretan hilabete pasatzera joaten naiz eta, gero, urtean barrena, a beti egoten da aitzakiaren bat bisitan egun batzuetarako joateko: ezkontza bat dela, ospakizun bat...

Oñatiko zerbaiten faltarik sumatzen duzu?

Familiaren falta, batik batik. Baina sarritan etortzen dira bisitan. Nik lan handia dudanez, ez daukat horra askotan joaterik.



GOIENKARIA

Jatetxe sukaldari

Jardín jatetxe ezagunaren sukaldeko arduraduna da Palman. Aurki etorriko da Oñatira umea izatera.

Etortzen zarenean, hemengo lagunekin egoten zara?

Koadrilako eta umetako lagunak Oñatin dauzkatz, baita familia guztia ere. Hortaz, bisitan joaten naizenean, egoten naiz Oñatiko jendearekin, bai.

Zerk zauzka hor?

Lanak eta nirekin bizi den laguna, bikotekidea ere hemen dagoela. Gainera, Euskal Herria ez daukat hain urrun. Palmatik hegazkin bat hartu eta ordu betean hor nago. Itsasoa dago tartean, eta beharbada horrek eusten gaitu uhartean.

Noizbait Oñatira itzultzeko asmorik baduzu?

Oraingoan, ez. Hemen daukadan bizitza kalitatea ez litzateke berbera izango Oñatin. Nire lana-

rekin jarraitu nahi nuke eta, Euskal Herrian, oso zaila litzateke jatetxe bateko sukaldean orain daukadan bezalako arduradun postua lortzea.

Hemengo jendeari gomendatuko zenioke horra joatea?

Ni etorri nintzen moduan, gaztetan lanera etortzeko gogoan duenari, esango nioke asmo horri eusteko eta probatzera etortzeko. Oporretan Mallorcara etortzen diren gehienek hegoaldea ezagutzen dute, eta alderik okerrera da. Ni bizi naizen herrira iparraldean dagoenez, esango nioke askoz politagoa dela eta merezi duela ikustea. Jendea berezia da, *uharteko sindromea* delakoa daukate, uste dute hemendik kanpora ez dagoela ezer; baina euskaldunok ere bereziak gara, hortaz...

kale inkesta

Zezenak tarteko diren ekitaldietan, nahikoa segurtasun neurri hartzen dela uste duzu?

Dolores Heis
Langilea
Bergara


Nahikoa, ezetz esango nuke. Ezagutzen dut gizon bat ogia erostera irten eta, zezenarekin ikaratuta, azkenean hil egin zena. Niri ere beldurra ematen dit sokamuturra dagoenean kalera gerturatzea.

Izaskun Pardina
Langilea
Bergara

Azkenaldian, ez dut hemen horrelakorik ikusi, eta ez dakit zein neurri hartzen diren. Baina segurtasuna norbere esku dago: lehen, zezena kalean ibili arren, norberak irteteko aukera bazuen, esaterako.

Joxean Pescador
Langilea
Bergara

Segurtasuna egon bada, baina, neurriak ipini arren, jendeak tontokeria asko egiten du: umeak entzierroetara eraman, esaterako. Ni neu ez naiz oso zalea, eta hemen, adibidez, ez dakit zein neurri dauden.

Edu Eguren
Langilea
Bergara

Baietz uste dut. Gainera, hemen, sokamuturrean ateratzen dituzten zezenak ez dira horren handiak. Aspaldi ez ditut ikusi, eta barruan ez naiz inoiz izan, baina sekula ez dut arriskuan nagoenik sentitu.

zorroztailea



Itzulpen barik

"Munduan dauden hitzetatik itzultzen zailena *ilunga* omen da, tshiluba hizkuntzekoa, Kongoko Errepublikako Demokratikoko hego-ekialdean hitz egiten dena (...). Esanahia, "gehiegikeria bat lehen aldiz barkatu bai, bigarrenean eraman bai, baina hirugarrenean sekula onartuko ez duen pertsona."

Gara > 2007-09-23



Munduan dauden zazpi mila hizkuntzetatik erdiak galtzeko zorian daudela argitaratu du National Geographic News-ek. Mundu globalizatuan, pertsonen joan-etorriak, komunikabideen zabalkundeak eta inperioen nagusitasunak dira hizkuntza txikiei kalte egiten dizkietenak. Kalkulatuenez, munduko populazioaren %80k 83 hizkuntza handi hitz egiten ditu, eta aldi berean, 300.000 hizkuntza txiki daude populazioaren %0,2k baino erabiltzen ez dituenak.

Madrilgo lagun batek antzu irizten zion guk euskara berreskuratu nahiarri. Zertarako horrenbeste ahalegin, horrenbeste diru beti gutxiengo baten hizkuntza izango dena berreskuratzeko? Zertarako hainbeste neke euskara irakasten, erreibindikatzen, erabiltzen, jakin baldin badakigu gure lurralde txikitik irtenda, ez digula inorekin ulertzeko balio izango? Frantsesa eta espainola bezalako hizkuntza handiak izanda aldamenean, horrelako literatur tradizioa dutenak, zertarako galtzen dagoen hizkuntza bat berpizten saiatu, lana besterik emango ez digun hizkuntza batekin indarrak xahutu? Praktikotasuna argudiatzen zuen berak, nazionalismo espainiarra deitzen nion nik. Zeren horri jarraituta, hobe denok txinera edo ingelesa besterik ikasiko ez bagenu.

Burugogorrek, nonbait, euskaldunak, arnasestuka dabilen hizkuntza batean saiatu nahian. Burugogoragoak debagoiendarrak, Bergara aldeko hiztegia oraingo astean Interneten ipini dutenean, Donostia-ira joateko ere balio ez digun euskalkia bultzatzeko. Euskalkia, batua, espainola eta ingelesa ikasi beharra jartzen diogu geure buruari.

Ezin baina guztia imperioetako hizkuntzetan esan: nik *pottolo* ezin dut beste hizkuntza batean esan, ezin ditut *pa*, *neba*, *matraka* hitzak beste hizkuntza batean esan, ez eta ama hizkuntza dudana gazteleraz ere. *Hau jiria* esateko modu bakarra ezagutzen dut, *politik horrek* ezin didate beste inongo modutan esan. Eta Bergara aldeko hiztegia Interneten ipini denetik badakit asteburu hau *andafuerako soiñekua jantzita* nabilela, zutabe hau idazteko ia denborarik gabe. Norberaren bizitzak ez daukalako itzulpenik.

"Burugogorrek, Donostiarako ere balio ez digun euskalkia bultzatzen"

"Nik 'pottolo', 'pa', 'neba', ezin ditut beste hizkuntza batean esan"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Olakuako ahateen urmaela gaizki zainduta dago

Olakuako urmaelaren gaineko kexak ez dira berriak gure erredekzioan. Oraingo astean berriro etorri zaigu beste auzotar bat kexarekin: "Oso zikin dago, ura geldi-geldi dago eta usain handia botatzen du. Udalarari eskatzen diot zaintzeko edo, bestela, kentzeko".

ZUZENKETA

Futboleko emaitza batzuk ez ziren zuzen argitaratu joan den astean

Joan den asteko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN, futboleko orrian, txarto jarri genuen Emakumezkoen Ligako BTL5 eta Mondraren arteko emaitza: arrasatearrek 0-8 irabazi zutela jartzen zuen, baina datu hori txarto zegoen. Zapatu arratsaldean Ipintzan jokatu beharreko lehia bertan behera geratu zen; hala, BTL5ko zuzendaritza taldekoek adierazi digutenez, urriaren 12ra atzeratu dute Debagoieneko nesken arteko derbia.

Bestalde, mutilen Lehenengo Erregional mailan, Bergara eta Oiartzunek 1-1 berdindu zuten ligako lehenengo jardunaldian; eta, Ohorezko Kadete mailan, Bergarak 4-2 irabazi zion Touring taldeari Ipintzan.

usteak uste

Jon Berezibar

Alkatea ez ei zen erromes joan

Hautsak harrotu ditu joan den domekan Arrasateko alkatea Arantzazuko erromesaldira ez joateak. Jarrera hori Arrasateko Uri Buru Batzarrari, antza, errespetu falta handia iruditu zaio. Nik ezin ditut ulertu alkatearen jarrera arbuiatzeko jeltzaleek erabilitako arrazoiak. Kulturartekotasuna batetik, modernitate bestetik, herria eta ohitura zaharrak aurretik... Kezko hitz larregi, eskema simple batek argi dezakeen auzia azaltzeko: bi alor daude norberarenak, pribatua eta publikoa. Eta tartean, estatuaren akonfesionaltasuna. Fedea norberak esparru pribatuan bizi beharreko kontua da, erlijioa gauza intimoa da eta hor alkate batek ez du zeresanik. Alkateak bete dezala agindu zaion lana, eta ez ditzagun gauzak nahas.

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larranaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publitza@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENEKO GOIENKARIA ez du bere gain hartzen IRTITIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Arbolapetako zuhaitza gaixorik dago, baina Udalak dio ez dela galduko > 10



> **BERGARA**
Mikel Igartua eta Ibane Baseta, hirugarren San Martinetako dantza suelto txapelketan > 11



> **ELGETA**
Larrabiltzearra auzoko bidea gaizki konpondu dutela esaten dute auzotarrek > 14

ARAMAIO > EUSKAL HERRIKO IPUIN KONTALARIEN FESTA

Ipuin kontalariek herriko bazter magikoak hartu zituzten zapatuan

KONTALARIAK

Euskal Herri osoko 21 kontalari bildu ziren Aramaio festan

IPUINAK

Era ezberdinetako ipuinak, adin ezberdinendako

AFARIA

Herri-ipuin-afari batekin amaitu zuten ospakizun eguna

EDURNE BURGAÑA > ARAMAIO

Bazen behin... Euskal Herriko kontalarien festa... eta non egingo jaia, eta Debagoienean. Zehazki esateko, Aramaion. Euskal Herri osotik etorritako 21 ipuin kontalari bildu ziren zapatuan herrian, bertakoekin -eta bertara joatera animatu zirenekin- kontu-kontari aritzeko. Urterotertero egingo dute jaia herriz herri, eta aurren, Aramaio aukeratu dute.

IPUINAK ETA JOLASAK

Kalera irten eta oinez hasita, gutxien esperotako bazterretan kontalari bat agertzen zen, batzuk instrumentuekin, beste batzuk liburu batekin eskuetan... denetarik. Ipuin poteoa, ipuin kontultorioak, ipuin musikatuak, ipuin ezberdinak entzuteko aukera egon zen. Entzuleak ere adin guztietakoak ziren: ipuin batzuk nagusiei zuzendutakoak ziren, eta beste batzuk, umeei. Baina, azken horietan, gurasoek ere ederki parte hartu zuten, eta barre mordoa bota ere.

Herri txikia da Aramaio, baina txikia izanagatik ez da gutxiago. Txoko ederrak ditu, erreka izkina, adibidez, eta oso leku aproposak dira talde txikiei zuzendutako ipuinak kontatzeko. Herriko tabernak, jolaslekuak, erreka bazterrak eta arkupeak



KONTALARIA Aramaio kaleetan, adin guztietakoendako ipuinak kontatu zituzten; irudian, umeendako bat.

EDURNE BURGAÑA

ipuinak kontatzeko eszenatoki bihurtu ziren egun batez.

Ipuinak bakarrik ez, gaztetxoendako tailerrak ere egin zituzten. Txatxilipurdikoek karpa

pare bat jarri, eta bertan ibili ziren denetarik egiten. Umeak, gustura, ipuinak entzun eta, bien bitartean, jolasteko aukera ere eduki zutelako.

Giro ederra zegoen kalean, nahiz eta eguraldiak askorik ez lagundu: zeru grisa zegoen goizaldean, eta aurreko gauako euri zaparraden aztarnak. Eguerd

partera, berriro ere euria hasi zen. Baina aramaioarrek eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta belarriak tentu eduki zituzten, ipuinak entzun eta kontaketa parte hartzeko.

Goiza amaitzeko, parte hartutako kontalariek ipuin saioa egin zuten Udaletxeko arkupean.

HERRITARRAK, KONTALARI

Goizean hasitako festak arratsaldean jarraitu zuen. 17:00etan hasita, Santa Ana basiliza, kanposantu zaharra, Zubiondo, Sastiña basiliza eta Udaletxearekin lotutako ipuinak kontatu zituzten. Elizako eskaileretan, kontalariek txandaka ibili ziren gero.

Eguna amaitzeko, herri-ipuin-afaria egin zuten. Antolaitzaileek, kontalarien festa bakarrik ez, herritarrena izatea ere gura zuten. Aramaioko aspaldiko istorioak eta kondairak gogorarazi zituzten, beste ipuin askoren artean.

...eta hala ez bazan, sartu nadi-la kalabazan eta agertu nadi-la Aramaio plaza.

ZEIN DA ZURE IPUIN GUSTUKOENA?



Endika Aspe
Entzulea

"Ez daukat gustuko ipuinik, niri komikiak gustatzen zaizkit: Mortadelo eta Filemonenak, zehazki. Baina, ipuin bat aukeratzekotan Patxi Errementariarena aukeratu nuke".



Jone Oianguren
Entzulea

"Niri gehien gustatzen zaidan ipuina Txanogorritxorena da. Baina nik neuk ipuina irakurtzea baino, aukeran, nahiago dut norbaitek kontatzea istorioa. Entzutea gustatzen zait".



Ainhoa Oianguren
Entzulea

"Ez daukat gehien gustatzen zaidan ipuinik. Bat baino gehiago gustatzen zait. Gainera, nahiago dut neuk irakurtzea, beste batek kontatzea baino. Hala ere, ez dut asko irakurtzen".

EMAKUMEA > JABETZE ESKOLA

Emakumeei jabetze prozesuak laguntzeko

Ikastaroak izango dira emakumeen jabetze prozesua lantzeko; urtarrilean jarraituko dute, emakumeen lidergoaren gainean

UBANE MADERA > ARRASATE

Formazio proiektu berritzailea da Jabetze Eskola, emakumeen eta gizonen berdintasunaren bidean. Emakumeei zuzendutako ikastaroa da, haien jabetze prozesuan laguntzeko.

Emakume Txokoak bideratu du ekimena; Esther Lizarralde, hango dinamizatzaileak, azaldutakoaren arabera, emakumeei bizi duten egoeraz gogoe-

ta egiten lagundu gura diete: "Kontzientzia kritikoa bultzatu nahi dugu, eta pentsatzen dugu ikastaro hauekin sor daitekeela hori. Gure ahalmenak landuko ditugu, gure asmoak aurrera eramateko".

Hori guztia lantzeko, ikastaroak egingo dituzte, urrian hasita. Honela azaldu du Esther Lizarralde ikastarootako edukia: "Ikastaroen bitartez lortu nahi dugu emakumeek tresnak edo erraztasunak izatea eremu publikoan parte hartzeko. Lanerako, aisialdirako, nor bere bizitzarako eta gizarte eremu guztietan parte hartzeko tresnak emateko eta bide horretan laguntzeko dira ikastaroak. Adibidez, jendaurrean hitz egiteko ikastaroa landuko dugu, gure beldurak eta segurtasun gabeziak

landuko ditugu eta nor bere buruan konfiantza izaten erakutsiko diete".

PLAZA MUGATUAK

Hiru motatako eskolak emango dituzte: landuko dute munduko emakumeen literatura; blogak eta komunikazio digitala (teknologia berriak lantzeko) eta zela berba egin jendearen aurrean.

Jabetze Eskola adin eta esparru guztietako emakumeendako dago zuzenduta. Izena emateko epea zabaldu dute, irailaren 28a arte. Emakume Txokoak nabarmendu du plazak mugatuak direla. Izena emateko, inprimaki bat bete behar da Emakume Txokoan. Ordutegia da, astelehentik eguenera, 15:00etatik 19:00ak arte, eta egubakoitzetan, 10:00etatik 14:00ak arte.



ZUHAITZA Arbolapetako paisajearen zati garrantzitsua da indiar gaztainondoak.

UBANE MADERA

INGURUMENA > ARBOLAPETAKO ZUHAITZA

Gaixorik dago, baina ez galtzeko arriskuan, Arbolapetako zuhaitza

Izan dugun uda eta urte sasoi ezegonkorra dira zuhaitzaren gaixotasunaren arrazoiak

U.M. > ARRASATE

Arbolapetako zuhaitza, indiar gaztainondoak, gaixorik dagoen arren, biziraun egingo duela erakutsi dute zuhaitzari egindako analisisiek.

Joan den egunean jaso zituzten emaitzak Udalean, Foru Aldundiko adituen eskuetatik. Eta emaitzak ikusita eta zenbait komunikabidetan azaldu dena-

ren kontrara, ez dute bota behar izango Arbolapetako plazatxoari izena ematen dion zuhaitza.

Amaia Arana udal teknikariak azaldutakoaren arabera, indiar gaztainondoak inguruan oso hedatuta dagoen onddo bat dauka. Halaber, jakinarazi du ez diotela inolako tratamendurik ipiniko zuhaitzari eta oraindik ere txosten ofizialen zain badau-

de ere, dagoeneko udal tenikariak konfirmatu egin du zuhaitzak, oraingoz, dagoen moduan jarraituko duela.

KLIMA KONTUA

Arbolapetako zuhaitzak duen onddo hori hedatzearen arrazoiak da izan dugun uda eta urte sasoi ezegonkorra. Hortaz, datoren urtean ere antzerako eguraldia eginez gero, gaixotasuna berdin-berdin hedatuko litzateke. Monterron parke inguruko indiar gaztainondoak egoera berean daude.



JOSETXO ARANZABAL

"Errepresio plana" salatu du AAMk

Egubakoitzean, ibarreko gainerako herrietan moduan, Arrasaten ere kale agerraldia egin zuten, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta. "Azken asteotan izandako errepresio adierazpenak direla-eta" deitu zituzten mobilizazioak -"Euskal Herriarentzat errepresio plan bat zehaztu dute PSOEk eta PNVk", salatu zuten-, eta esan zuten "Euskal Herriak errepresio honen aurrean amnistia eta askatasunaren aldeko borroka duela antidoto eragingarria".

POLITIKA > UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Txosna Batzordeak laguntzaileak behar ditu Maritxutarako

Karpa erraldoia ipiniko dute Kondekua zelaian, Monterronen, eta barruan, barra luzea

U.M. > ARRASATE

Bi aste falta dira Maritxu Kajoi izateko, eta dagoeneko Arrasate hasi dira egun hori prestatzeko lanak. Hala, Txosna Batzordea irail hasieratik dabil Maritxu Kajoirako batzarrak egiten. Besteak beste, hainbat ekintza dagoeneko egiteko moduan dituzte. Hala jakinarazi dio Arrasate Irratiari Itziar Osa Txosna Batzordeko kideak.

PLAZA MUGATUAK

Haren esanetan, karpa erraldoia ekarri behar dute, Konkuan ipintzeko, hau da, Monterron azpiko zelaian ipintzeko. Karpak zelai osoa hartuko du, Pablo Uranga kaleraino; hain justu ere, Pablo Uranga kale aldera, karpa itxita egongo da.

Karpa barruan barra luzea ipiniko dute, edariak zerbitzatzeko; eta, horrez gainera, aurrean, sandwich hotzak ere zerbitzatzeko dituzte. Horren harira, Txosna Batzordeak deialdia egin du, barruan lan egiteko gertu dauden laguntzaileak topatzeko. Itziar Osaren esanetan, kalkulatu dute denetara ehun bat lagun beharko dituztela, txanda guztiak bete ahal izateko, "baina gehiago lortzen baditugu, oraindik hobeto", gaineratu du Txosna Batzordeko kideak.

Hala, oraingo astean bertan ipiniko dituzte lagundu gura duten boluntarioen izenak hartzeko kartelak. Bi tabernatan eman ahal izango da izena: Iratin eta Dat-en edo lehengo Ispilun.

> ARRASATEKO UDALA

Dirulaguntzak, edukiontzia, Maritxu Kajoi eta beste landuko dituzte, gaur, gobernu batzarrean

Gaur du Tokiko Gobernu Batzarrak asteroko bilera. Landuko dituzten gaien artean, hainbat dirulaguntzarekin lotutako kontuak aztertuko dituzte. Esaterako, 2007ko dirulaguntzen deialdiko laguntzak zela banatu erabakiko dute; euskal kantuzaleen elkarteak txapelketaren saioa antolatzeko laguntza eskatu dio Arrasateko Udalari; Iban del Campo arrasatearrak ere laguntza eskatu du *Lo Bakarrik* film laburra egiteko; eta, diru kontuekin bukatzeko, irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak antolatzeko aurrekontua ere berbagai izango dute. Horrez gainera, bestelakoan artean, Zabalgunean lur azpiko edukiontzia ipintzeko eskaera ere aztertuko du, esandako moduan, gaur, gobernu batzarrean.



AUZO ALKATEAK Udalaren ordezkariak auzoetan nortzuk diren badakigu. Irudian (eserita), Mila Elortza.

GOIENKARIA

AUZOAK > AUZO ALKATEAK

Auzoek ordezkari berriak aukeratu dituzte

Eguazteno, auzotarren kezka jasoko ditu Maite Guridi batzordeburuak udaletxean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako Udalak dagoeneko izendatu ditu auzo alkateak legegaldi berrirako. Auzo ezberdinetan sistema ezberdinak erabili dituzte euren ordezkariak aukeratzeko, Udalaren onespenerekin. Kontuak kontu, Udalaren ordezkariak herriko auzoetan hauek izango ditugu aurrerantze-

an: Mila Elortza (Angiozar), Jose Gabilondo (San Blas), Jesus Osa (Elorregi), Jesus Agirre (San Juan), Jesus Elortza (Ubera), Ainhoa Bristain (Elosua), Alex Alberdi (Aldai Egia auzoa) eta Gaspar Ezenarro (Basalgo). Auzo izaerarik izan ez arren, Aiart Lizarralde izango da Mekolaldeko ordezkaria. Bestalde, aste

bukaeran Osintxun egin dute bozketa, eta Luis Mari Alberdi hautatu dute berriz ere. Azken lau urteotan ere bera izan da auzo alkatea Osintxun.

ASTERO, AUZOENDAKO TARTEA

Udal gobernuko kideek hainbat bilera egin dituzte dagoeneko auzo alkate berriekin. Maite Guridi auzoetako batzordeburuaren arabera, eguazteno, auzoen kezka jasoko ditu udaletxean, 12:30etik 14:00etara bitartean.

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Gaztetxoei zuzendutako eskaintza Jardunen eskutik

Hainbat talderekin batera, nagusiendako Berriketan egitasmoa jarri du abian hirugarren urtez

E.M. > BERGARA

Jardun euskara elkarteak ikasturte berrirako eskaintza plazaratu berri du. Aurreko urteotan bezala, gaztetxoendako aisialdia da elkartearen zutabetako bat. Horrela, zapatu eta domeketan Arrizuriaga jauregian gaztetxoei zuzendutako ekintzak izango dira. Hiru talde bereiztu dituzte: Txapligu (4., 5. eta 6. mailako neska-mutikoendako), Txiskrilabi (DBHko ikasleei zuzenduta) eta, azkenik, Gazte taldea (16-22 urte bitartekoendako). Esan beza-

la, Arrizuriagan elkartuko dira aste bukaeratan, 16:00etatik 20:00etara bitartean.

Era berean, astean zehar hainbat ikastaro eskaintzen ditu Jardunek, bertso eskola, panderoa, soinua eta euskal dantzak tartean. Edozein argibidetarako Jardun elkartera, 943 76 08 19 telefonora jo dezakezue.

BERRIKETAN EGITASMOA

Bestalde, beste hainbat talderekin elkarlanean, Berriketan egitasmoa jarri du abian Jardunek, hirugarren urtez. Euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartzeko proiektuak erantzun bikaina jaso du orain arte. Astean behin elkartzen dira euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak hiruzpalau lagunez osatutako talde txotan, euskaraz jarduteko aitzakiarekin. Izenematea zabalik dago.



EKITALDIA Jardunen ikasturte amaierako jaialdia.

GOIENKARIA

Dantza solteko txapela eta zapia, Oreretara

Egubakoitzean hamabi bikotek hartu zuten parte Udal Pilotalekuan jokaturako Moises Azpiazuren omenezko dantza solteko txapelketan. Oreretako Eneko Gil eta Leire Larrañagarendako eta Hernaniko Xabier Segura eta Lierri Martiarenarendako izan ziren, hurrenez hurren. Lehia gogorra izan zen dantzarien artean, eta lehenengo bi bikoteek berdinketa hausteko berriz dantzatu behar izan zuten, frontoian elkartutako dantzazaleen gozamenerako.



JOSETXO ARANZABAL

> TURISMOA

Bisita gidatuak Turismo Bulegoaren eskutik

Udaleko Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Aste barruan 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era dago zabalik eta zapatu eta jaiegunetan 11:30etik 14:30era. Besteak beste, bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen dute. Argibideak 943 77 91 28 telefono zenbakian.

> ALDERDI EGUNA

Domekako Alderdi Egunerako autobusa antolatu du EAJk

Domekan, irailaren 30ean, Alderdi Eguna ospatuko du EAJ alderdiak Gasteizen, Forondan. Bergarako EAJk autobusa antolatu du bertara joateko. Irteera goizeko 9:00etan egingo dute Ibarraiko autobus geltokitik. Izenematea 943 76 47 00 telefonoz egin daiteke.

ELIZA > OSPAKIZUNA

Elizkizuna eta luntxa, sei apaizen urrezko ezteietarako

San Miguel parrokia lepo bete zen Oñatiko apaizen elizkizuna jarraitzeko

Mezaren ondoren, klaustroan, luntxa egon zen bertaratutakoendako

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Nikolas Zumalde Ugarte, Jose Luis Santa Krutz Beloki, David Irueta Mallea, Jose Luis Galdos Guridi, Jose Mari Murua Zabaleta eta Sabino Zuazabeitia Iza izan ziren atzoko protagonista nagusiak. Apaizgoan urrezko ezteiak beteta, ospakizun berezia egin zuten eguerdiko hamabieta-ko meza nagusian. Halaber, elizkizunean beste hainbat apaizen laguntza izan zuten.

Horregatik guztiagatik, Mikel Deunaren parrokia jendez lepo bete zen elizkizunerako eta, ondoren, klaustroan egindako luntxean parte hartzeko.

Elizkizuna hasi aurretik, "urduri baina pozik" agertu ziren sei protagonistak. Halaber, gogorazi zuten haietako batzuk erretiratu daudela, baina beste batzuek, oraindik ere, lanean "gogotsu" jarraitzen dutela.



OMENDUAK Argazkian, Sabino Zuazabeitia, David Irueta, Jose Mari Murua eta Jose Luis Galdos.

JOSETXO ARANZABAL

1957. URTEAN

Urrezko ezteiak ospatu zituzteneko batzuk, Oñatin jaio, eta beste batzuk, Oñatin, elizako lana egin dute. Lau erlijiosoak dira: bat frantziskotarra, Nikolas Zumalde, eta beste hirurak, kano-

nigoak, Jose Luis Santa Krutz, Jose Luis Galdos eta David Irueta; eta beste biak, apaizak: Jose Mari Murua eta Sabino Zuazabeitia, hain zuzen.

Apaizgintzan 50 urte egin dituzten sei gizon horiek 1957.

urtean apaiztu ziren. Orduetik, Ecuador, Argentina, Bilbo, Bolivia, Oñati, Japonia, Errenteria, Erroma, Santander, Santiago eta Donostia bezalako tokietan bete dute haien lana. Oraindik ere jarraitzeko asmoa azaldu dute.

ZIENTZIA > HITZALDIA

Gizakia Ilargira iritsi ote zen aztertuko dute hitzaldi baten eguenean, kultur etxean

Ilartari Astronomia Taldeak antolatutako hitzaldiko hizlaria *El Correo*-ko Luis Alfonso Gamez izango da

M.B. > OÑATI

Ilartari Astronomia Taldeak, Oñatiko Udalaren laguntzaz, astronomiaren gaineko hitzaldia antolatu du egunerako. *¿Llego el hombre a la luna?* izeneko hitzaldia kultur etxeko zine-aretoan iragartzen da, arratsaldeko zazpietan hasita.

ZALANTZA

Azken urteotan zabandu da, batez ere Internet bidez, gizakia ez dela benetan Ilargira iritsi. Hipotesi horren aldeko frogak zeintzuk diren; zientziak horren guztiaren

inguruan dioena; eta uste hori noiz eta zergatik sortzen den aztertuko da egueneko hitzaldian. Uste horren sorrera, eta konspirazioaren teoriaren aldeko frogak aztertuko ditu *El Correo* aldizkariako zientzia arloko arduradun Luis Alfonso Gamezek. *El Correo*-ko adituaren hitzaldia gaztekeraz izango da. Halaber, adituak emango dituen azalpenen ondoren, galderak egiteko aukera izango dute hitzaldira joaten diren guztiak.

30 URTE

1969ko uztailearen 21ean iritsi zen Apolo 11.a espaziontzia Ilargira. Barruan zihoazen astronautetatik Ilargia zapaldu zuen lehena Neil Armstrong izan zen. Harekin batera, Edwin Aldrin eta Michael Collins zeuden.

Orduan ikusitako irudi haiek, egun zalantzan jartzen dira.



ILARGIA Argazkian, Neil Armstrong, Ilargia zapaltzen.

NASA

> PARROKIA

Hitzaldia, gaur, Espetxe Pastoreko batzordearen eskutik

Oñatiko Espetxe Pastoreko batzordeak hitzaldi bat iragartzen du gaur arratsaldeko. *Espetxea, ezagutu nahi ez den mundu bat* izeneko hitzaldia parrokiako Garoa aretoan izango da, arratsaldeko seiak eta erdietan.

Jose Ramon Trebiño apaizak espetxearen inguruko kontakizunak egingo ditu. Espetxe Pastoreko batzordeak herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte hitzaldira. Espainolez izango da.

> JAIK

Herri bazkarirako txartelak salgai, bihar hasita

Urriaren 6an ospatuko den Herri Eguneko herri bazkarirako txartelak bihar bertan jarriko dira salgai Olakua, Umerez, Guria, Arrano, Anton eta Izarraitz tabernetan. Txartelean zehazten da bazkarirako menua: marmitakoa, erredondoa saltsan, almendra tarta melokotoiarekin, eta kafea eta kopa.

Bazkarirako txartelak 16 eurotan jarriko dira salgai, iaz baino euro bat garestiago.

> KIROLDEGIA

Igerilekua itxita, gaurtik urriaren 9ra arte, bi egunak barne

Osakidetzak urtean bi aldiz agintzen duen garbitasun sakona egiteko, Zubikoa kiroldegiko igerilekuak atak itxi ditu gaur. Hala, igerileku zerbitzua etenda egongo da urriaren 9ra arte, bi egunak barne. Hortaz, atzerapean ez bada, igerilekua urriaren 10ean zabalduko da.

Osakidetzak agintzen duena betetzeko, bi igerilekuak, handia eta txikia, hustu egingo dira. Ondoren, banaka garbitu egingo dira.

> LANPOSTUA

Hiru udaltzain kontratzeko deialdia egin du Udalak

Udalak hiru udaltzain postu bete gura ditu. Bi barne promozioz beteko dira, eta hirugarrena, kanpo promozioz. Edozelan ere, lanpostuok udaltzain moduan bi urteko antzinatea duten lagunendako dira. Halaber, beste bi baldintza jarri dira: euskarari dagokion hirugarren hizkuntza eskakizuna, eta BTP deritzon gida baimena izatea. Eskararak udal bulegoetan utzi behar dira, urriaren 20a baino lehen.

ARETXABALETA-ESKORIATZA > BIDEGORRIA

Bidegorriaren Aretxabaleta iparralde eta Eskoriatza arteko zatia inauguratu dituzte

Mugikortasuneko diputatua eta Inaxio Garro alkatea izan ziren ekitaldian

Aretxabaletako iparraldeko konexioa eta Eskoriatza arteko tramua, zabalik

I.B./T.M. > ARETXABALETA-ESKORIATZA Egubakoitzean Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorriaren tramua inauguratu zituzten, berriro lanak egin ostean.

Luzeraz 250 metro ditu zatiak, hiru metroko zabalera du eta bidearen zati bat bizikletaz doazentzat egokitu dute. Bidezorua berriro egin dute bertan, eta drainatze nahiz argiztatze sare berria jarri dituzte. Bi hilabete eta erdi iraun dute lanek, eta 97.000 euro inguruko kostua izan dute lan horiek guztiek.

BERREHUN METRO

Aretxabaleta eta Arrasate arteko bidegorriak 200 metro pasatxo ditu. Zabalera, aldiz, lau metro. Tramu horretan ere argiztapena eta drainatze sistemak



PASEOAN Bidegorria oinezkoek zein bizikletan doazenek erabil dezaketa.

IKER BARANDIARAN

jarri dituzte. Deba ibaiaren eta Gipuzkoa 632 errepidearen tartean dago, eta ibaitik babesteko, 150 metro luze eta lau zapabost metro zabal dituen harri lubeta eraiki dute. Uztaile eta abuztu artean egin zituzten, eta 214.000 euro inguruko aurrekontua du.

Carlos Ormazabal Mugikortasun diputatua inaugurazio ekitaldian izan zen, eta aditzera eman zuen Gipuzkoako Aldundia bidegorri sarearen aldeko apustua egiten dabilela, eta orain herritarrek bidegorria erabili egin behar dutela.

Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok azpimarratu zuen Arrasaten zein Aretxabaletan lan egiten dutenak bizikletaz joan ahal direla lantokira. Horrez gain, jakinarazi zuen Aretxabaletako Udalak bidegorriekin lotutako lan gehiago egin gura dituela.

ESKORIATZA > GAZTEAK

Egubakoitzean zabaldu zuten gaztelekua, oporren osteko atsedenaldiaren ostean

Urrirako ekintza ugari antolatu dituzte; eta urriaren 8an gaztelekuaren gaineko berbaldia egingo dute gurasoendako, kultura etxean

I.B. > ESKORIATZA

Egubakoitzean zabaldu zuten gaztelekua, oporren ostean. Zerbitzu hori Udalararena da, baina Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen du. 12 eta 16 urte bitartekoei zuzenduta dago.

Egubakoitzean, DBH-1eko ikasleendako zabaldu zuten gaztelekua, eta euren jaia antolatu zuten. Mahai futbol txapelketa, monozikloak, hennazko tatuajeak... egin zituzten.

Zapatuan, berriz, erabiltzaile guztiek izan zuten aukera zerbitzu horretaz baliatzeko. Eta hala egin zuten.

Horrez gain, jakinarazi dute hilabete zehar pin eta txapak egiteko aukera izango dela; eta ikastaroak, txapelketak, irteerak eta beste ere izango direla.

Gabonetan bi urte beteko ditu gaztelekuak, eta horren arduradunak, Udala eta Txatxilipurdi, oso pozik daude orain arte izan duen harrerarekin.

GURASOENDAKO AURKEZPENA

Bestalde, Udaleko Gazteria Sailak aditzera eman du gaztelekuaren gaineko berbaldia antolatzeko asmoa dutela. Urriaren 8an egingo dute, kultura etxean, 18:00etan. Berbaldi hori gurasoei zuzenduta egongo da.

Gazteria Sailak azaldu du garrantzitsua deritzotela gurasoei azaltzea zelan funtzionatzen duen gaztelekuak, zer ekintza mota egiten dituzten eta zer helburu dituzten. Hala, bide batez, gurasoek euren zalantzak argitu ditzakete.



MERIENDA Inaugurazio jaia egin zuten gaztelekuan egubakoitzean. JOSETXO ARANZABAL

ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egingo dute gaur

Zergen gainean egindako hitzarmenak aztertuko dituzte

I.B. > ARETXABALETA

Astelehenean ohiko bilkura egingo dute Aretxabaletako udaletxean. 18:00etan izango da, osoko bilkura aretoan.

Zazpi puntu izango dituzte aztergai osoko bilkuran. Lehenik eta behin, ohikoa den moduan, aurreko bilkurako aktaren onarpena egingo dute.

BASERRI AUZOEN ZINEGOTZIA

Aztertuko duten beste gai bat izango da Leintz Udal Euskaltegirako udal ordezkarien eta baserri auzoetako udal zinegotziaren izendapena.

Horrez gain, kale garbiketa zerbitzuaren esleipena egin gura dute; eta hondakin baxak ere berbagai izango dituzte.

Bestalde, hemendik aurrera Aldundiak Udalaren esku utziko du OHZren (etxebizitzaren gaineko zerga) tramitazioa.

ESKORIATZA

Hainbat ekintza Amuskaren eskutik

I.B. > ESKORIATZA

Amuska emakumeen elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu oraingo ikasturterako. Urriaren hasi eta ekainera arte iraungo dute eskolek: larrua, ehonak eta bainika, olio margoztatzea eta eskulanak.

Horrez gain, antzerkiarekin eta sormenarekin lotutako eskolak ere prestatu dituzte ikasturterako.

IZENEMATEA BIHAR ARTE

Ikastaro horietan esku hartzeko izenematea gaur, astelehena, zabaldu dute; eta bihar izango da azkeneko eguna. Kultura etxean egin beharko dute, 17:00etatik 19:00etara. Antzerki eskolek 20 euroko matrikula dute (bazkideendako, 15 euro). Beste ikastaroek, berriz, 60 euroko matrikula dute (eta bazkideek, berriz, 50 eurokoa).

ELGETA > HIRIGINTZA

Larrabiltzearra auzoko bidea gaizki konpondu dutela diote auzotarrek

Diputazioak aglomeratu txarra bota duela-eta, bidea ondo jartzeko eskatzen dute

Elgetako Udalak bilera eskatu du auzotarren salaketok Diputazioari aurkezteko

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Diputazioarena izan da orain arte Larrabiltzearra auzoko bidearen titularitatea. Udalak hartu behar du orain ardura hori, baina, aurretik, Diputazioak bidea egoera onean lagako zuela adostu zuten alde biek.

Aldundiak egin ditu lanak, baina auzotarrak kexu dira. Diputazioak kalitate txarreko aglomeratua bota duela salatzen dute. "Oso aglomeratu txarra bota dute", esan du Enrike Ormaetxea auzotarrak. "Hemen lanean ibili zen langile batek esan zidan azken hogeitaz urteotan ez dutela aglomeratu hori inon bota. Ez dakit zergatik bota duten hemen; nire ustez, aprobetxatzearen edo". Ormaetxek dio aglomeratua lehertu egiten dela, batez ere, pisu handiko ibilgailuekin.



ALTXATUA Enrike Ormaetxea, Larrabiltzearra auzoko bidearen sarreran lurra altxatuta dagoela erakusten.

LARRAITZ ZEBERIO

AUZOKO SARRERA, OKERREN

Zorua altxatuta dago Larrabiltzearra auzoko bidean, leku bat baino gehiagotan. Arazoa auzoaren sarreran ikusten da argien. "Traktoreak ibiltzen dira sarri

bide honetan. Asko dira, gainera, auzoaren sarrera buelta emateko erabiltzen duten kamioiak. Ibilgailu horien joan-etorriek lehertu egiten dute zorua, eta eskatzen dugu Diputazioak bidea

esandako moduan lagatzea", esan du Ormaetxeak. "Gainera, alkatari esan diot errepide horren titularitatea ez onartzeko, Diputazioak bidea behar den moduan konpontzen duten arte".

UDALAK BILERA ESKATU DU

Elgetako Udalak bilera eskatu du Diputazioarekin udal aparejadorearen informea ere arazoak antzeman dituelako bide horretan. Laster egitea espero dute.

ANTZUOLA > EUSKARA

Euskara eskolak Udalaren ekimenez

Udaleko Euskara Batzordearen ekimenez, euskara eskolak emango ditu herrian Arrasateko AEK euskaltegiak

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Badira hamar bat urte horrelako ekimenik egiten ez dela herrian, baina, oraingo ikasturterako, berriz ere euskara eskolak antolatzea erabaki du Udaleko Euskara Batzordeak.

Arrasateko AEK arduratuko da ikastaroak emateaz. Alfabetatzeko, euskalduntzeko, EGA ateratzeko, laugarren maila ateratzeko eta beste hainbat aukera eskainiko dituzte ikastaro horietan. Izena emateko aukera dago urriaren 10era arte, udaletxean. Behin taldeak osatzen dituztenean jakinaraziko dute zein egunetan hasiko diren eskolak eta zein egunetan izango diren.

MIZPIRUALDEKO ERAKUSKETA

Begarako Mizpirualde egoitzako berritze lanen berri emateko hitzaldia eta erakusketa antolatuko dituzte datozen egunetarako. Hitzaldia egingo du egoitzako zuzendari Gregorio Iruetagoienak oraingo astean; egunean izango da hori, irailaren 27an, 18:00etan, Oларan etxean.

Bestalde, erakusketa ere jarriko dute egoitza zela gertuko den ikusteko. Irailaren 29an eta 30ean eta urriaren 6an eta 7an egongo da zabalik erakusketa, Oларan etxean. Erakusketaren ordutegia honakoa izango da: 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ARAMAIO > AZPIEGITURAK

AHTaren inkesta datorren asteburuan

Abiadura Handiko Trenaren inguruko inkestak ez du legezko baliorik izango; herritarren iritzia jakin nahi dute galdeketaekin

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Aramaioko Udalak irailaren 28tik 30era bitartean egingo du Abiadura Handiko Trenaren inguruko inkesta. Asier Agirre alkateak adierazi du inkestak ez duela inolako legezko baliorik izango. Galdeketa, gainera, ez da Aramaioko tramuari buruz bakarrik izango. "Gauza ez da jendeak AHTk Aramaion bertan izango duen inpaktuaz bozkatzeari; hau da, AHTren proiektua osotasunean hartuta eman beharko dute herritarrek iritzia. Ez du balio esateak, adibidez, AHT Aramaiorako ez, baina Euskal Herrirako bai", azaldu du Asier Agirre alkateak.

Datorren egubakoitzean, irailaren 28an, hautestontzi bat jarriko dute udaletxean, asteburuan bozkatu ezin dutenentzat. Zapatuan, gero, auzo alkateak aukeratzeko auzoetan egingo diren hauteskundeak aprobetxatuz, beste hautestontzi bat jarriko dute inkestari erantzun ahal izateko. Domekan ere, udaletxean botoa emateko aukera izango dute aramaioarrek. Gogoratu inkestan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa dela Aramaion erroldatuta egotea.

Galdera bakarra izango da: jendeak proiektuaren alde edo kontra dagoen erantzun beharko du.

LEINTZ GATZAGA

Gizarte-laguntzailea, martitzenetan udaletxean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Martitzen goizetan egongo da udaletxean gizarte-laguntzailea, Ainara Gabilondo eskoriatzarrak, hain zuzen. Hala adostu zuten egunean, hilak 20, Bideberri mankomunitateko kideek, Gatzagan bertan egin zuten batzarrean. Hala ere, aurrez hitzordua egitea gomendatu du Ainara Zubillaga gizarte-zerbitzuetako zinegotziak.

ZUBILLAGA, PRESIDENTEORDEA

Bideberri mankomunitatea Antzuola, Elgeta eta Gatzagak sortu zuten aurreko agintaldian, eta gizarte-zerbitzuei dagokien gaiak bideratzea du helburu. Zubillaga zinegotzi gatzagarra mankomunitateko presidenteordea da. Aurreko astean egingako batzarrean, dirulaguntzak zela bideratu argitu zuten.

Kirola



> **FUTBOLA**
UDAK irabazi egin du, eta Mondrak eta Aloñak, berriz, berdinu > 16



> **ESKUBALOIA**
Eibarko Haritzak irabazi zuen Mikel Deuna Eskubaloia Txapelketa > 19



> **ZIKLISMOA**
Gurutx Larren antzuolarra, bigarren Oñatiko helmugan > 20



> **4X4**
Sergio Mirallosek irabazi du Eskoriatzako proba > 21

MENDI MARATOIA > ZEGAMA-AIZKORRI

Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra, hirugarren Zegamako helmugan

Mendiko lasterketen Euskal Kopa ere irabazi zuen Arrasateko korrikalariak

Lleidako Kilian Jornet izan zen azkarrena helmugan: 3:56:59ko denbora egin zuen

MIREIA BIKUÑA > ZEGAMA

"Ustekabea izan da niretzat Zegaman lortutako hirugarren postua. Ez nuen inondik ere espero". Hitz horiekin laburtu zigun Zuhaitz Ezpeletak Zegama-Aizkorri mendi maratoian egindako lana. Ezustean, baina korrikalari arrasatearrak hirugarren tokia lortu zuen Zegamako helmugan. Halaber, postu hark Mendiko Lasterketen Euskal Kopa irabazteko aukera eman zion.

Ezpeletaren (4:03:58) aurretik sartu ziren helmugan Lleidako Kilian Jornet (3:56:59), eta Segoviako Raul Garcia (3:57:05).

IRTEERA

Goizeko bederatzietan irteera hartuta, Otzaurten denbora onena egin zuen Ezpeletak, Jornetekin eta Ionut Zincarekin batera. Atabarretan, Aratzen eta Portugainen, Raul Garcia egin zituen markarik onenak.

Lasterketa erdian, Sancti Spiritu, Fernando Etxegarai, Zuhaitz Ezpeletak eta Kilian Jornetek denbora berbera egin zuten, 1:54:44. Halaber, puntu hartan, iazko irabazle Angela Mudge izan zen emakumerik azkarrena.

Aizkorrira bidean, Jornetek aurrera egin zuen. Haren atzetik, Raul Garcia eta Fernando Etxegarai pasa ziren. Puntu hartan, Ezpeletak laugarren denbora onena egin zuen. "Lasterketa Sancti Spiritutik Aizkorrira bidean apurta da. Jornetek eta Garcia jarritako erritmoa oso gogorra izan da. Beste maila bateko korrikalariak dira", azaldu zigun Ezpeletak.

Hala, Aitxurin, Jornet, Garcia, Ezpeleta, Etxegarai eta Castanyer izan ziren lehen bostak.



HIRUGARREN Argazkian, Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra, Zegamako helmugara iristen, ikurriña eskuetan duela.

MIREIA BIKUÑA

AZKEN KILOMETROAK

Oltzeko puntuan, 30 segundoko errenta zuen Jornet gazteak. Bada, Urbian, Jornet eta Garcia elkarrekin egin ziren, eta denbora berbera egin zuten, 2:59:00. Urbian, Zuhaitz Ezpeletak 27 segundoko tarte zabalduta zuen Fernando

Etxegararekin. Halaber, Tofol Castanyer zen lasterketako bosgarren sailkatua.

Andraitzetik behera, lasterketako azken hamabi kilometroetan, lasterketa buruko korrikalarien ordenan ez zen inongo aldatarik egon.

Hala, Mendiko Lasterketen Munduko Koparako puntuagarria zen laugarren lasterketa irabazi zuen Lleidako 18 urteko gazteak: Andorrako, Malasiako, eta Nagano mendi lasterketak irabazi zituen aurretik. Halaber, garaipen haiekin, Mendiko Lasterketen

Munduko Kopa ere Lleidako korrikalariak eskuratu zuen.


Emakumeen lasterketan, orain bi urte garaipena eskuratu zuen Corinne Favre izan zen azkarrena. Iazko irabazlea, Angela Mudge, bigarren tokian iritsi zen helmugara.

DEBAGOIENDARRAK



Zuhaitz Ezpeleta
Arrasate

"Oso pozik nago egindako lanarekin. Aurten ez nuen espero halako lanik egitea. Denbora luze zaintiratu bat izan dut, eta meniskoa ere ez daukat ondo. Horregatik guztiagatik, gaurko emaitza ezustea izan da niretako".



Mikel Navarro
Arrasate

"Laugarren aldia da Zegama-Aizkorri maratoian parte hartzen dudana. Gaurko nire helburua iaz egindako denbora, 4:30:00, jaiste zen; eta, segundu gutxi batzuegatik, lortu egin dudala uste dut. Pozik nago".



Juan Manuel Martinez
Eskoriatza

"Pozik nago, eta oso nekatuta ere bai. Hirugarren aldiz hartu dut irteera Zegaman. Lasterketa asko gustatzen zait. Gaurko nire helburua iazko denbora berdintzea zen; eta, gutxiagatik, baina helburua bete dudala uste dut".

sailkapenak

DEBAGOIENKARRAK

3. Zuhaitz Ezpeleta	4.03.58
17. Mikel Navarro	4.30.56
32. Juan Manuel Martinez	4:43:33
67. Jabi Martinez	5.03.13
126. Iker Agirrebaltzategi	5.31.25
140. Iban Isasti	5.33.59
141. Xabier Lijo	5.33.59
188. Josu Gascon	5.50.20
196. Jesus Odrizola	5.52.26
266. Unai Agirrebaltzategi	6.23.10
271. Jabi Isasti	6.25.20
272. Alberto Etxagibel	6.26.35
288. Asier Sagastizabal	6.36.35
292. Leire Ezpeleta	6.37.12
309. Xabier Iñurritegi	6.53.41

SAILKAPEN OROKORRA

1. Kilian Jornet	3.56.59
2. Raul Garcia	3.57.05
3. Zuhaitz Ezpeleta	4.03.58
4. Fernando Etxegarai	4.06.17
5. Tofol Castanyer	4.07.15

PREFERENTEA > ALOÑA MENDI-EUSKALDUNA

Aurka zuen emaitzari aurre egin eta berdindu egin zuen Aloñak

ALOÑA MENDI

3-3

EUSKALDUNA

Aloña Mendi > Idigoras, Barrera, Olalde, Sanchez (Carpintero, 45. min.), Igartua, Idigoras, Garmendia (Arregi II., 55. min.), Camino, Arregi I.a, Atigarraga (Elgarresta, 35. min.), Zubia.

Euskalduna > Ezkurdia, Berrueta (De Lucas, 60. min.), Pontesta, Lopez, Altuna, Telletxea, Ugalde, Markez (Manero, 89. min.), Duke (Infante, 67. min.), Artola (Garcia, 75. min.), Mauleon.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Euskaldunak lehenengo zatian sartutako hiru golei aurre egin, eta partidua berdintzea lortu zuen atzo Aloñak Azkoagainen.

Etxean jokatu duten denboraldiko bigarren partidua maldan gora jarri zitzaizen oñatiarrei lehenengo 20 minutuetan. Lehia hasi bezain laster egin zuen lehenengo gola Euskaldunak: Pontestak egin zuen, 9. minutuan. Gero, Artolak bigarrena egin zuen eta, azkenik, Berruetak sartu zuen hirugarrena. Euskaldunak ez zuen aparteko jokorik egin, baina hiru bider iritsi zen Aloñako atera, eta hiruretan egin zuen gola. Partidua erabakita zegoela zirudien; baina Aloñak, etxekoan aurrean, itxura ona eman gura zuen, eta burubelarrari egin zuten lan jokalariek lehia aurrera ateratzeko.



CAMINO Bigarren gola ospatzen, Xabi Camino, bi aurkari ondoan dituela.

JOSETXO ARANZABAL

ATSEDEN AURRETIK, GOLA

Hala, atsedenera iritsi baino lehenago, Aloñak lehenengo gola egin zuen; Unai Arregik penaltiz egin zuen gola.

Bigarren zatian, etxekoak guttiz indarberrituta atera ziren. Zelai

erdiaren jabetza hartu zuten eta aurrera egin zuten, garaipenaren bila. 10. minutuan, Xabi Caminok, buruz, gol bikaina lortu zuen. Gero, Jon Igartuak eta Xabier Elgarrestak hirugarrena egiteko aukera izan zuten, baina ezereze-

an geratu ziren jokaldiak. Azkenik, Iker Olalde egin zuen berdinketaren gola. Lehia amaitu aurretik, etxekoek hiru puntuak irabazteko aukerak izan zituzten, baina, azkenean, puntu bakarra geratu zen Azkoagainen.

PREFERENTEA > EIBARTARRAK-MONDRA

Mondrak hiru goleko errenta berdindu zuen Eibartarrak taldearen aurka Unbe zelaian

Hirugarren jardunaldia jokatu da asteburuon; orain arte Mondrak atea hutsik egotea lortu badu ere, zapatuan hiru gol jaso zituen

EIBARTARRAK

3-3

MONDRA

A.E. > ARRASATE

Mondrak hiru goleko errenta berdindu zuen zapatuan Unben; 3-0 galtzen joan ondoren, arrasatearrek bigarren zati ona egin zuten eta puntu bat ekarri zuten.

Unben jokatuak lehian, etxeko taldea gehiago izan zen, batez ere, lehenengo zatian. Eibarko jokalariek indartsu irten

ziren zelaira, eta Arrasatekoak baino hobeto ibili ziren. Zelai erdiaren jabetza hartu zuten; baloia ondo mugitu zuten zelaian alde batetik bestera, eta jokaldi politik egin zituzten.

PRESIOA

Zelai erdian egindako presioaren ondorioz etorri ziren etxeko golak. Lehenengo zazpigarren minutuan izan zen: Enrikek sartu zuen. Bigarrena, 16. minutuan, Franciscok lortu zuen. Hala, lehenengo ordu laurdenean, etxeko taldeak errenta polita lortu zuen markagailuan. Hirugarren gola 32. minutuan egin zuen Jonek.

ARRASATEARRAK, INDARTSU

Bigarren zatian, partidua non-dik norakoak guttiz aldatu ziren. Arrasatearrek indartsu irten ziren zelaira, eta jokoaren kontrola hartu zuten; hala, hiru gol egin eta berdintzea lortu zuten.

Mondraren lehenengo gola Iker Lopezek egin zuen, 54. minutuan; bigarrena Ekainek sartu zuen. Lehia amaitzeko bi minutu falta zirela lortu zuen Mondrak berdinketa: Julen Herizek sartu zuen gola, 88. minutuan, hain zuzen. Zapatuko puntuarekin, Mondrak zazpi puntu ditu sailkapenean, eta bigarrenak dira.

> PREFERENTEA

Aretxabaletako taldeak ligako lehenengo garaipena erdietsi du

Hirugarrenen jardunaldian lortu ditu UDAn ligako lehenengo hiru puntuak: zapatuan, Zestoaren aurkako lehian 0-1 irabazi zuen Igor Arenazaren taldeak.

Azken bi partiduetan ez dute irudi ona eman aretxabaletarrek; eta, gainera, ez dute punturik lortu. Izan ere, lehenengo partiduan, 2-0 galdu zuten Donostiako Vasconiaren aurka; eta aurreko astean, etxean, 2-4 galdu zuten Aloñaren aurka. Hori dela-eta, ezinbestekoa zuten UDAn garaipena lortzea. Zestoan lortutako hiru puntuarekin, UDAn arnasa hartu du datorren asteko partiduari begira: Hernaniren aurka jokatu dute Ibarren. Orain, sailkapeneko 15. postuan daude, hiru punturik.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	9	3
2. Mondra	7	3
3. Hernani	7	3
4. Berio	6	3
5. Trintxerpe	6	3
6. Aloña Mendi	5	3
7. Euskalduna	4	3
8. Zumaiaiko	4	3
9. Aurrera	4	3
10. Idiazabal	3	3
11. Vasconia	3	3
12. Anaitasuna	3	3
13. Touring	3	3
14. UDA	3	3
15. Hondarribia	3	3
16. Zestoa	3	3
17. Real Union	3	3
18. Eibartarrak	1	3

Emaitzak

Zumaiaiko-Hondarribia	1-0
Real Union-Berio	0-3
Vasconia-Ordizia	0-1
Aloña Mendi-Euskalduna	3-3
Zestoa-UDA	0-1
Idiazabal-Aurrera	1-2
Anaitasuna-Touring	2-0
Eibartarrak-Mondra	3-3
Hernani-Trintxerpe	4-2

Hurrengoak

Hondarribia-Real Union
Berio-Vasconia
Ordizia-Aloña Mendi
Euskalduna-Zestoa
UDA-Idiazabal
Aurrera-Anaitasuna
Touring-Eibartarrak
Mondra-Hernani
Trintxerpe-Zumaiaiko

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Elgoibar-Bergara	1-0
Antzuola-Amaia Bat	3-2

BIGARREN ERREGIONALA

Urki-UDA	2-9
Ikasberri-Elgeta	1-1
Mondra-Zestoa	7-0
BTLs-Eibartarrak	3-0

EMAKUMEZKOAK

Ordizia-Mondra	0-7
Bergara-BTLs	1-2
Arizmendi B-Lagun Onak	2-6
Mutriku-Arizmendi	7-1

OHOREZKO GAZTEAK

Beasain-Bergara	2-3
Mondra-Zumaiaiko	1-2
Ordizia-Aloña Mendi	2-1
Urola-UDA	0-2

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK

UDA B Arizmendi-Ilintxa	0-2
Bergara-Soraluze	2-0

OHOREZKO KADETEAK

Aloña Mendi-Beasain	4-1
Bergara-Tolosa	0-3

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK

Arizmendi-Bergara B	1-1
Eibartarrak-UDA B	2-0
Ilintxa-Arrasate	0-5

KADETE TXIKI

Arrasate-Internacional	5-0
------------------------	-----

KADETE NESKAK, F11

Zumaiaiko-Aloña Mendi	7-0
Zarautz-Arizmendi	3-1

KADETE NESKAK, F8

Bergara	atsedena
---------	----------

'Musika nahi entzun dadila'

Arkaitz, Hernani.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxan** ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan

Osasuna

Gizarte-Laguntza

Elkartasuna

Hezkuntza

Ikerkuntza eta Enplegua

Kultura 5 milioi, kultura jende guztiarengana hurbiltzeko

Aisialdia

Ingurumena



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**




Karaoke Ikuskizuna

Urritik aurrera Debagoiënean!

- Ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango dira.
- Emanaldi guztiak GOITBn emango dira, Debagoieneko Telebistan.

BABESLEA



gaztetxo
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ESKUBALOIA > TXAPELKETA

Eibarko Haritzak eroan du Oñatiko txapelketa, penaltietan irabazita

Aloñak hirugarren postuan amaitu du txapelketa, Bergarari 25-23 irabazi ondoren

Jokalari onenaren saria Eibar taldeko Jose Angel Fernandez atezainari eman zioten

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Parekatua izan zen Mikel Deuna sariko finala; ondorioz, penalti bidez erabaki behar izan zituzten txapelketako irabazleak. Bada, penaltietan, Eibarko Haritza 3-2 nagusitu zen Zarautzen aurka.



SARITUAK Irudian, finala jokatu zuten Eibarko Haritzako eta Zarautzko jokalaria.

ARANTZAZU EZKIBEL

HUTS ASKOKO PARTIDUA

Joan den astean, Bergara eta Aloñaren aurka jokaturako finalerdietan lortu zuten finalerako txartela Eibarko Haritzak eta Zarautzek.

Biak ala biak maila oneko taldeak dira; hala ere, denboraldiurrean daudela asko nabaritu zen atzoko finalean, huts asko egin zituzten-eta. Lehia oso parekatua izan zen: hala, lehenengo zatiko lehenengo minutuetan, Zarautz markagailuan aurretik jarri zen, baina gero, Eibarko jokalariek lehia berdintzea lortu zuten.

Berdinketarekin, tentsioa nagusitu zen bi taldeen artean; atsedenera, markagailuan aurretik joan gura zuten bi taldeek. Hala, azkeneko minutuetan, Zarautzko jokalariek egindako lanak bere saria izan zuen; atsedenera, 10-7 aurretik joan ziren.

Aldagelatik bueltan, Eibarko jokalaria indarberrituta irten ziren. Zarautzkoek, gainera, huts asko egin zituzten; baloi samurrak galdu zituzten, eta jaurtiketetan ez ziren fin aritu.

Bestalde, aipatzekoa izan zen Eibarko atezainak egindako lana; hainbat penalti gelditu zituen Jose Angel Fernandezek. Hori dela-eta, amaieran, jokalaria onenaren saria jaso zuen Fernandezek.

PENALTIK EGON ZIREN

Finala berdinketarekin amaitu zen (20-20); ondorioz, talde bakoitzak bost penalti bota zituen. Zarautzko jokalaria hasi ziren penaltiekin, eta lehenengo hirurak huts egin zituzten. Penaltie-

tan ere, Fernandez atezainak egindako lana txalotzekoa izan zen. Eibarko taldeak, aldiz, bost penaltietatik hiru sartu zituen. Hala, 3-2 nagusitu ziren, eta Mikel Deuna txapelketa irabazi zuten.

Bestalde, hirugarren postua lortzeko lehian, Aloña eta Bergara ibili ziren nor baino nor gehiago. Lehia oso parekatua izan zen; atsedenean, 11-12 aurretik ziren bergararrak. Bigarren zatian ere, jokoa berdintsua izan zen; hala, azken bost minutuak

izan ziren erabakigarriak. Etxeko taldea indartsu iritsi zen azkeneko minutuetara, eta 25-23 irabazi zuen kontsolazio finala. Modu honetan, Aloñak irabazi zuen hirugarren garaikurra.

Amaieran, sari banaketa egin zuten. Lehenengo hiruren garaikurrak Eibarrek, Zarautzek eta Aloñak jaso zituzten. Jokalari onenaren saria, berriz, Eibarko Jose Angel Fernandezek eraman zuen. Aho batez hartutako erabakia izan zen; lan bikaina egin zuen atezainak atzo.

ARETO-FUTBOLA > TXAPELKETA

Donostiako taldeek irabazi zituzten Oñatiko finalak

Colegio Aleman taldeak irabazi zuen gazte mailako finala, eta Pub JB taldeak, senior mailakoa

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Donostiako taldeek menderatu zituzten areto-futboleko Mikel Deuna txapelketak. 15. edizioa jokatu zen zapatuan, eta Colegio Aleman eta Pub JB taldeek irabazi zituzten bi finalak.

GAZTE MAILA

Kiroldegian jokaturakoa hiruko txapelketa izan zen, talde guztiek elkarren aurka jokatu zuten-eta. 20minutuko zatiak jokatu ziren.

Zapatu goizean, gazte mailako txapelketa jokatu zen. Colegio Aleman eta Eskoriatza taldeek jokatu zuten lehenengo. Donostiako taldeak 4-1 irabazi zuen. Bigarren zatian, Aloñak galtzailearen aurka jokatu zuen, eta Oñatiko talde-

ak 4-1 menderatu zuen Eskoriatza. Hortaz, hirugarren lehia izan zen erabakigarria. Partidu horretan, Colegio Aleman taldeak 2-4 menderatu zuen Aloña Mendi.

SENIOR MAILA

Senior mailako txapelketa arratsaldean jokatu zen. Hala, maila hartan ere, Donostiako Pub JB taldea nagusitu zen. Lehenengo partiduan, Zarautz taldea menderatu zuen (4-1). Bigarren norgehiagokan, Aloñak eta Zarautzek 2-2 berdindu zuten.

Hala, Mikel Deuna txapelketa irabazteko hirugarren lehia irabazteko beharra zuen etxeko taldeak. Bada, Aloñak 1-4 galdu zuen donostiarren aurka.



IRABAZLEAK Argazkian, senior mailako irabazlea, Pub JB taldea, saria jaso ondoren.

JOSETXO ARANZABAL

OÑATI SARIA > 20. EDIZIOA

Gurutz Larrea antzuolarra bigarren izan zen Oñatin

Probako irabazlea Würth taldeko Benet Abad Garcia almeriarra izan zen

Olakuako podiumean, Gurutz Larrea gain, Oñatiko Joseba Iciarrek ere saria jaso zuen

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Lasterketa polita egin zuen Gurutz Larrea antzuolarrak zapatuan; hala, Oñatiko helmugan bigarrena izan zen. Gutxiatik bada ere, Benet Garcia almeriarrak irabazi zion 20. Oñati saria; Garcia ihes eginda iritsi zen Olakuara. Atzetik, zazpi segundora, bederatzi lagunez osatutako taldea sartu zen helmugara.

IHESALDIA, UDANAN

Goizeko 10etan, euripean, ekin zioten txirrindulariek probari; hasierako puntuan, 19 eta 20 urteko 62 txirrindulari elkartu ziren. Oñatiko Olakua auzotik irten eta Udana igo zuten; han, lehenengo ihesaldia gertatu zen. Txirrindulari talde txo batek aurre hartu zuen eta tropela atzean uztea lortu zuten. Legazpitik Deskargara eta handik Bergarara jaitsi ziren, eta herri horretatik berriz ere Oñatirako bidea hartu zuten.

Zapatuko proban, hiru bider egin behar izan zuten txirrindulariek aipatutako itzulia. Guztira, 114 kilometro egin zituzten; tartean, Udana eta Deskarga igo beharra izan zuten txirrindulariek. Irabazlearen batezbesteko abiadura 39,26 kilometro ordukoa izan zen.

Ihes egindako taldetxoak kilometro batzuk egin zituen bakar-bakarrik. Baina, azkenean, tropel nagusiak harrapatu egin zuen taldea.

ERDIEK UTZI EGIN ZUTEN

Denboraldiko azkeneko lasterketa zela kontuan hartuta, txirrindulariak ez ziren maila onean heldu Oñatira. Hala, izena 62k eman zuten arren, helmugara 31 besterik ez ziren iritsi. Joseba Iciar oñatiarrak zera adierazi zuen: "Denboraldi amaiera dela kontuan hartuta, nekatuta iristen gara Oñatiko probara. Gainera, gaur egin duen eguraldia kontuan hartuta, askok utzi egin dute proba".

Azken itzulian erabaki zen lasterketa. Aurrealdean, 12 txirrindulariz osatutako taldea zeterren. Bergaratik Oñatira batera etorri ziren, baina Oñatin, Madalena gasolindegia ondoan, Würth taldeko Benet Garcia ihes egin zuen. Olakuako helmugara bakarrik iritsi zen almeriarra. Atzetik, bederatzi segundora, taldea sartu zen.

"Nire taldekideen laguntza erabakigarria izan da garaipena lortzeko; atzetik zeterren taldean Bidelan eta Caja Rural talde-



HELMUGA Benet Garcia, Olakuako helmugara sartzen.

JOSETXO ARANZABAL

ko txirrindulariak zetozen, baina nire taldekideek lan ona egin dute, eta ez diete utzi taldetik tira egiten", adierazi zuen Benet Garcia helmugan.

Bestalde, ibilbidea gogorra iruditu zitzaion Garcia: "Bai, lasterketa gogorra izan da. Des-karga hiru bider igo behar izan dugu; hala ere, alde samurretik igo dugu, eta uste baino gutxiago sufritu dut". Gainera, ibilbide gogorraz gain, eguraldi txarra ere egin zuen zapatuan: "Ni ez nago hotzera eta eurira ohituta, eta hasieran gogorra izan da. Baina, gero, uste baino hobeto aritu naiz, eta amaierara ondo iritsi naiz", gaineratu zuen irabazleak.

SARI BANAKETA

Oñatiko podiumean lasterketako hiru lehenengoak izan zuten garaikurra. Hala, Garcia, Larrea eta Gutierrez igo ziren podiumean. Joseba Iciarrek (Azpiru-Ugar-te) Oñatiko lehenengoaren saria jaso zuen, eta Jon Pardok (Seguros Bilbao) mendiko saria lortu zuen. Zazpi puntu lortu zuen Pardok Oñatiko lasterketan; bigarren sailkatua Alberto Morras taldekidea izan zen, hiru punturakin.

Azkenik, taldekako saria banatu zuten: Würth taldeak irabazi zuen (8:42:53). Amaieran, talde argazkia egin zuten saritu guztiek Olakuako podiumean.

sailkapenak

LEHENENGOAK

1. Benet Abad Garcia	2:54:13
2. Gurutz Larrea	2:54:20
3. Jose Manuel Gutierrez	2:54:20
4. Ivan Gonzalez	2:54:20
5. Borja Castro	2:54:20
6. Eloy Carral	2:54:20
7. Adrian Legasa	2:54:20
8. Ivan Gil	2:54:20
9. Jagoba Arberas	2:54:20
10. Jon Pardo	2:54:20
11. Alberto Morras	2:54:51
12. Felipe Santamaria	2:55:00
13. Xabier Zabalo	2:56:33
14. Gorka Ursua	2:56:46
15. Gorka Izagirre	3:02:54

Lehendakari txapelketa Castroviejorentzat

Azken urteetan bezala, aurten ere Oñatiko proban erabaki da Lehendakari Txapelketako irabazlea. Seguros Bilbao taldeko Gorka Izagirre eta Jonathan Castroviejoren artean zegoen lehia; azkenean, Castroviejok irabazi zuen maillota.

Oñatiko proban parte hartu bazuen ere, ez zuen lasterketa amaitzerik izan Castroviejok. Hala ere, denboraldi osoko lanaren ordaina jaso zuen Olakuako podiumean. Ondoko argazkian, Castroviejo, Pardo, Garcia, Gutierrez, Iciar, Larrea, eta Würth-eko zuzendaria.



Lasterketako saritu guztiak.

ARANTZAZU EZKIBEL

DEBAGOIENDARRAK

Gurutz Larrea
Antzuola

"Udana lehenengo aldiz igo dugunean ihesaldia egon da; baina, gero, tropelak bat egin du. Azkenean, Oñatin, Benet Garcia ihes egin du eta helmugara bakarrik iritsi da. Pozik nago bigarren egin dudalako".

Joseba Iciar
Oñati

"Gogorra izan da lasterketa; alde batetik, denboraldiko azkena da eta, bestetik, eguraldi txarra egin du. Gainera, ez dut taldekiderik izan, bakarrik etorri naiz Oñatiko lasterketara eta, hala, zaila da ondo ibiltzea".

LASTERKETA > 4X4

Leongo Sergio Miralles 40 punturekin nagusitu zen Eskoriatzako lasterketan

Ander Zugasti oñatiarra sailkatu zen bigarren tokian, eta Xuper Ordorika, hirugarrenean

Guztira, 21 gidarik eman zuten izena, zapatuan, Apotzagan jokatu zen proban parte hartzeko

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Huts gutxi eginda, 40 punturekin, Leongo Sergio Miralles nagusitu zen Apotzagan jokaturako III. 4x4 Ibilgailuen Kontzentrazioan. Haren atzetik, Ander Zugasti oñatiarra (185 puntu) eta Berako Xuker Ordorika (220 puntu) sailkatu ziren.

Guztira, 21 autok parte hartu zuten zapatuko proban; bada, bost autok ez zuten proba bukatu, matxuratu egin ziren-eta. Halaber, Eskoriatzako proban parte hartu zuten gidari gehienak ibarrekoak ziren.

ZAZPI GUNE

Zapatuko kontzentrazioa Eskoriatzako 4x4 Basurdeak taldeak antolatu zuen, Eusko Motor taldearen laguntzarekin. Apotzagan kokaturako zirkuitua zazpi gunetan banatu zuten antolatzaileek, eta gune bakoitzak zailtasun maila ezberdina zuen. Hala ere, egubakoitzean eta zapatu goizean egindako euriak ibilbideko hainbat gune zaildu egin zituen. Hala, bigarren eta hirugarren zenbakiak zituzten gunetan, putzu handiak sortu ziren. Tarte haietan, autoek zailtasun bat baino gehiago izan zuten aurrera egiteko.

Edozelan ere, zailtasunak zailtasun, gidari bakoitzak zazpi guneak pasa zituen. Gune haietako batzuk bi noranzkoetan egin behar ziren, ezkerretik eskumara eta eskumatik ezkerredera. Gune

bakar batean, noranzko bakarreko bidea egin zuten.

ZIGORRAK

Apotzagako probako antolatzaileek arau batzuk ezarri zituzten proba hasi aurretik. Hala, gidariek ezinbesteko segurtasun-uhala erabili behar zuten. Arau hura betetzen ez zuen gidariak une hartan egiten ari zen gunetik kanporatuta geratzeko arriskua zuten. Gainontzeko arau guztiak puntutako zigorrak besterik ez ziren. Hortaz, ibilbidean egindako akatsak hartu ziren kontuan sailkapena egiterako orduan. Hala, puntu gutxien lortuta, Leongo Sergio Mirallesen irabazi zuen.

GIRO ONA

Eguraldia nahiko patala izan arren, zale asko hurbildu zen zapatuko proba ikustera; guztiak ere mendiko botak jantzita hurbildu ziren oso lokaztuta zegoen Apotzagako zirkuitura. "Giro ona egon da ikusleen artean", azaldu zigun antolatzaile taldeko kide batek. Euriaren erruz, ur asko zegoen ibilbidean zehar, eta autoek ikuskizun polita eskaini zuten: "Gidariek lan polita egin dute. Auto guztiak maila ona erakutsi dute, eta, alde horretatik, oso pozik gaude", esan ziguten Basurdeak taldeko lagunek.

Arratsaldeko hirurak aldera hasitako proba zortziak aldera amaitu zen, sari banaketa ekitaldiarekin.



IKUSKIZUNA Argazkian, parte-hartzaileetako bat, gune bateko aldapa jaisten.

JOSETXO ARANZABAL.

HONELA IKUSI ZUTEN ZALEEK



Nora, Juan, Igor, Eneko eta Raul
Arrasate



Adrian, Jon eta Javier
Eskoriatza

Argazkiko bost kideko lagun koadrillarekin hitz egin genuen Apotzagan. "Lagun baten lana" ikustera joan zirela aitortu ziguten. Juanek eta Raulek, etxeko txikienak eraman zituzten, merienda eta guzti. "Guri asko gustatzen zaigu, eta etxeko txikiek ere ikasi egin behar dute". Eguraldiaren erruz, mendiko bota eta euritarako zamarrekin ikusi genituen. "Egindako euria ona da parte-hartzaileendako, baina, lasterketa ikustera etorri garenondako, ez hainbeste", esan ziguten Arrasateko lagunek.

Aurretik ere egon izan dira Eskoriatzako gaztetxo hauek 4x4ko autoen probak ikusten. "Autoz ekarri gaituzte, eta bukatu arte egoteko asmoa dugu", esan ziguten proba hasieran. Motorzale amorratuak direla esan ziguten hirurek. "Gure herrian ez dira halako proba askorik egiten, hortaz, aprobeztatu egin behar dugu".

GOLFA > TXAPELKETA

Larrañaga, Txintxurreta eta Biain izan ziren golfean onenak

Parte-hartze handia izan zuen txapelketak; guztira, 50 lagun batu ziren Ireloren txapelketa jokatzeko

Juan Luis Larrañaga, Beatriz Txintxurreta eta Ander Biain izan ziren irabazleak zapatuko lehian

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI
V. Mikel Deuna Golf Txapelketa jokatu zen zapatuan Oñatiko Irelore zelaian. Hiru mailatan banatuta jokatu zuten; gizonetan, Juan Luis Larrañaga; emakumezkoetan, Beatriz Txintxurreta; eta gaztetxoetan, Ander Biain izan ziren irabazleak.

50 PARTE-HARTZAILE
Zapatuko txapelketak inoiz baino parte-hartze handiagoa izan zuen; Oñatin, Irelore golf zelaian, 50 lagun elkartu ziren ondo pasatzeko eta nor baino nor gehiago aritzeko.

Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, euria ez zen oztopo izan txapelketa aurrera eramateko. "Golfean jokatzeko, euria ez da traba izaten; makilak bustitzeko arriskua dago, baina berdin jokatu daiteke", azaldu zuen Javi Baltzategi Irelore eskolako ardura-dunak txapelketa amaieran.

Goizeko hamarretan hasi zuten txapelketa; zelaia zazpi zulo ditu, eta jokalariek bakoitzak bi bider egin behar izan zuen zazpi zulotako itzulua. "Jokalariek



PARTE-HARTZAILEAK Jokalariek, Oñatiko golf zelaian.

JOSETXO ARANZABAL

zulo bakoitza egiteko behar dituen kolpeen arabera egiten da sailkapena", gaineratu zuen Baltzategik. Hala, zulo bakoitza egiteko behar izan zituzten kolpeak batuta, kolpe gutxien egin zuen jokalaria izan zen garailea.

HIRU MAILA

Hiru taldetan banatuta ibili ziren jokalariek. Mutiletan, Bergarako Juan Luis Larrañaga izan zen irabazlea. Bigarrena, Legazpiko Txemi Berraondo izan zen; eta hirugarrena, Arrasateko Javier Izturiz.

Emakumeen taldean ere lehia gogorra izan zen. Azkenean, Beatriz Txintxurreta oñatiarra nagusitu zen. Txintxurreta etxean lehiatu zen, eta hori nahikoa izan zuen V. Mikel Deuna saria eskuratzeko. Oñatiarrak bi bergarar izan zituen alboan: bigarrena Isabel Martinez San Vicente izan zen, eta hirugarrena, Lierni Arregi. Hirurek osatu zuten Oñatiko podiuma.

Gaztetxoetan, iaz bezala, Ander Biain nagusitu zen. Oñatiarrak ondo jokatu zuen eta, lehia gogorra izan bazen ere,

azkenean, bigarren aldiz jarraian txapela etxera eramatea lortu zuen. Gaztetxoetan, bigarren sailkatua Ander Etxaniz bergararra izan zen, eta hirugarrena ere bergararra izan zen: Jon Maiztegi, hain zuzen.

JOKALARI BERRIAK

Aurtengo txapelketaren erantzunarekin pozik zegoen Baltzategi: "Parte-hartzaile asko izan da, eta horietatik asko, gainera, berriak izan dira". Hala, golfari eman gura dioten kutsu herrikoiek bere eragina izan zuen.

> TENISA

Aste bateko atzerapenez hasi da tenis txapelketa

Mikel Deuna tenis txapelketa aste bateko atzerapenarekin, zapatuan, jarri zen martxan. Txapelketan parte hartuko duten 19 jokalariek sei multzotan banatu dira. Hala, lehenengo fasea ligaxka modura jokatu dute. Bigarren faserako multzo bakoitzeko jokalariek onenak sailkatuko dira, eta berarekin kanporaketa bidez jokatu dute.

Atzerapen gehiegirik ez badago, finala urriaren 20an jokatu dute.

> XAKEA

Asier Etxagibelek eta Mikel Alcaidek, ezusteko garaipenak

Arrasate Hiria Xake txapelketako bigarren jardunaldiko emaitzarik aipagarrienak Asier Etxagibelek eta Mikel Alcaidek lortu zituzten. Hamalau eta hamahiru urteko bi jokalariek, Txema Hernando eta Erlantz Miguelez menderatu zuten.

Gainontzeko lehian, Fran Miguelek eta Luis Ortegak berdindu egin zuten, eta Andoni Miguelek eta Josu Tornayk ere bai.

> BOLA JOKOA

Iñaki Barrenak irabazi zuen Mikel Deuna Txapelketa

Atzo arratsaldean jokatu zen Kurtze Baltz elkarteak antolatutako Mikel Deuna Bola-Joko Txapelketa. Iñaki Barrena oñatiarrak irabazi zuen lehia, zortzi txirlo botata. Bigarren tokia zehazteko, berdinketa apurtzeko jaurtiketa egin zuten Jose Mari Beitiak eta Iñigo Kortabarriak. Azken horrek bi txirlorekin eskuratu zuen bigarren tokia. Guztira, 76 tiratzailek hartu zuten parte San Martingo bolatokia jokatu zuten txapelketan.

> PLATER TIROKETA

Herri mailako plater tiroketa txapelketa, zapatuan, Txopekuan

Urtero moduan, Oñatiko Pago Uso Elkarteak antolatuta, herri mailako plater tiroketa txapelketa jokatu da, zapatuan, Uribarri auzoko Txopekua zelaian. Hala, herri mailako txapelketa izaki, Oñatiko tiratzaileak izango dira protagonista.

Plater tiroketa txapelketa goiz eta arratsaldean jokatu da. Amaieran, txapelketan parte hartzen duten tiratzaile guztiendako sariak egongo dira.

PILOTA > TXAPELKETA

Aitor Mendizabal eta Ibai Bolinaga, DV pilota txapelketan

Mendizabalek Jauregi izango du bikotekide senior mailan; Bolinagak, aldiz, Jaunarenarekin jokatu du promesen mailan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aste bukaeran hasi da afizionatu mailako DV pilota txapelketa. Guztira, 32 pilotari lehiatuko dira: 16, promesen mailan, eta beste 16, senior mailan; tartean, ibarreko bi pilotari: Aitor Mendizabal eta Ibai Bolinaga.

MENDIZABAL

Iaz finalerdietara iritsita, final laurdenetako kanporaketan hasiko dute txapelketa Mendizabalek eta Jauregi soraluzetarrek. Gainera, Elgetan jokatu dute azaroaren 24an. "Iazko esperientziarekin, gogoia daukat txapelketa

hasteko", esan digu Mendizabal antzuolarrak. "Txapelketa polita da, gustura jokatzeko den horietakoa. Guk final laurdenetan hasiko dugu txapelketa. Hortaz, finalera iristeko hiru partidu jokatu behar ditugu".

Txapelketarako duen helburu garbia du antzuolarrak: "Gure helburu bakarra txapelketa ona egitea da. Bada, gero, faktore asko daude: esaterako, Jauregiarekin jokatu dudana lehen aldiz dela", azaldu zigan.

BOLINAGA

"Txapelketako bikotarik interesgarriena eta gazteena osatzen dute Jaunarenak eta Bolinagak". Hala deskribatu zigan Mauri Zubillagak Leitzako eta Arrasateko jokalariek osatuko duten bikotea. "Kadeteak izan arren, promesen mailan jokatu dute", azaldu zigan.

Txapelketa urriaren 7an hasiko dute, Errioxako Baños del Rio Toba herrian. Untoria eta Berge-raren aurka jokatu dute.



III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEH

Argazki guztiak fotoblog honetan:



BIDEAN. 2004ko abuztua, interrailean Budapesteik Veneziarako bidean. Geltoki koloretsu honetan, motxilak hurrengo trenaren zain. /Argazkia: Laura Perez /Aretxabaleta



AFRIKA. Uztailean Salematan (Senegal) ateratako argazkia. Bi neskatxo, lau izar beltz. /Argazkia: Lander Juaristi /Bergara



ILUNABARRA. Ozeano Pazifikokoan ilunabarrak horrelakoak dira... zer deritsozue? Hitzik gabe, lasaitasunaz gozatzeko aukera! /Argazkia: Estitxu Lobato /Bergara



PLITVICA Kroaziako Plitvica Jezera parke natural ikusgarrian ateratako argazkia da. Laku ederrak dira parke horren berezitasun bat. /Argazkia: Agurtzane Crespo /Bergara



UMEAK ORGATILAN. Lehengusu txikiak, orgatilan, goxoxo alde batetik bestera. Huaraz hiritik gertuko auzoetan. Peru. 2007ko abuztuan. /Argazkia: Inaki Lete /Eskoriatza



SIRI-MIRIA. Uztaileko lehenengo aste bukaeran ateratako argazkia. Bizkaiko agroturismo baten izan ziren, eta goiz hartan siri-miriak ziharduen. /Argazkia: Juantxo Jimenez /Bergara




HIK LAN ETA NIK JAI! Mexiko DFra bueltan, berriro ere kaosa, zarata, trafikoa, kutsadura... Erdialdean dagoen Zocalo plazara bidean, Arrasateko erdigunea bezain besteko leku baten, sekulako obrak! Eta ez pentsa oinezkoentzako pasabiderik zegoenik... /Argazkia: Garikoitz Kortazar /Eskoriatza




MUSIK-VEREIN. Aurtengo udan Vienan ateratako argazki hori Musik-Verein eraikuntzarena da. Eraikuntza oso ezaguna da munduan zehar, bertako urrezko aretoan urtero Urteberri egunean Viena-ko Filamornikak Urteberriko kontzertua ematen baitu. /Argazkia: Ainhoa Etxenausia /Eskoriatza



KALEAN, PUNTU EGITEN. Kale izkina baten jarrita, lan eta lan emakumea. Huaraz hiria, Peru. 2007ko Abuztuan ateratako argazkia da. /Argazkia: Saioa Esnal /Eskoriatza



ADARRAK. Argazkia aurtengo irailan ataratakoak da, Cuenca Villalba del Rey herrian. Bertako jaietan, entzierroa egiten dute, eta gero, zezen bat askatzen dute herriko kaleetan. /Argazkia: Arantazu Mendizabal /Arrasate



AMAIERARIK GABEKO TUNELA. Munduko tunelik luzeena da argazkikoa. Norvegiar dago eta 24,5 kilometro luze da. Bertan sartzean badirudi amaierarik ez daukala, infernarako bidea dirudi. /Argazkia: Jon Errasti /Aramaio



APARETAN. San Juan jaietan, aurten, Eguzkilaru egunean; apar jaiak Biteri plazan. Ane, Garazi, Irune, Uxue eta Amets agertzen dira argazkian. /Argazkia: Amets Ormaetxea /Arrasate

ENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



ARAGOIKO PIRINIOAK. Huescako Pirinioetan, Perdido eta Cilindro iparraldea glaziareaz. Lalarri delako ordekan dago aterata argazkia. /Argazkia: Aitor Arana /Aramaio



LARRU-ONTZAILEAK. Marokoko Fez herrian ateratako. Larru-ontzaileak dira argazkikoak, eta koloredun zuloak tinteak dira; lan gogorra! /Argazkia: Oihana Arietaleanizbeaskoa /Aretxabaleta



ILUNABARRA. Uda amaieran, Ferroren Tontorra (Patos) Galizian. Abuztuaren 18a zen. /Argazkia: Mikel Agüero /Antzuola



ITSASONTZIA. Neska-mutilak arratsalde on bat pasatzen zeundela, itsasoari begira itsasontzi hau ikusi zuten. /Argazkia: Asier Martinez /Arrasate



ARDIAK. Arabako Apellaniz herrian ateratako ardien argazkia. /Argazkia: Ainhoa Carrasco /Aretxabaleta



SIMPSONDARRAK. Mediterraneoko hondartza batean pasatzen zebilela lehiakidea, Simpson familiako bi kiderekin topo egin zuen. Ez zioten sinadurarik egin, baina argazkia ateratzen utzi zioten. /Argazkia: Remedios Bengoa /Arrasate



PUENTELARREINAKO ZUBIA. Nafarroan oporretan, Puentelarreinako zubia bizikletan zeharkatzen. /Argazkia: Asier Egaña /Oñati



PIPA ERRETZEN. Txinako Sinchuan probintziako Danba herrixkan, gizon bat pipa horretan tabakoa erretzen ikusi zuten. /Argazkia: Saioa Urrutia /Arrasate



JAIETAN. Burua handitu edo buruhandiak txikitu? /Argazkia: Iñaki Arsuaga /Arrasate

Sariak

1. saria: Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 10 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 hazbeteko LCD pantaila



- 2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- 3. saria:** Bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzaqako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:



III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



COLOMBIA. Colombiako Santa Fe de Antioquia hiria, iluntzean. /Argazkia: Gina Tatiana Giraldo /Arrasate



SAGARDOA. Urteroko ohiturarekin jarraituz, aurtan ere Guinness errekorra hautsi dute Gijonen 6.899 lagunek sagardoa elkarrekin apurtzen. Ikusgarria benetan! /Argazkia: Iñigo Biain /Oñati




IRAGANEKO ESZENA BAT. Nafarroan, Otxagiko azokan, irudi hau hartu zuten irailaren 2an. Orain dela 100 urteko eguneroko bizitza. /Argazkia: Isabel Ruiz de Egiño /Eskoriatza



COVADONGA. Zelaiak berde-berdeak dira, eta lakua-
ren urdin eta berdearen arteko kolore nahasi ede-
rraz goza daiteke. /Argazkia: Gorka Martinez /Bergara



JOLASEAN. Umeak Sapa herrixkan (Vietnam), globoekin jolasean. /Argazkia: Joannes Mendizabal /Arrasate



TXORIA. Eskoziako herri txikitxo batean, txori bat autoaren gainean, hamarretako baten atzetik. 2005eko udan aterata. /Argazkia: Jaione Blazquez /Bergara




IKUSMUGARA BEGIRA. Miarritzeko hondartzan, arratsaldea jolasean pasatu ondoren, atsedean hartzeko unea iritsi da. Eguzki-sartzea zoragarria izan zen egun horretan. /Argazkia: Iñaki Barrena /Arrasate




ITSASOAREKIN OROITZEN. Polonian ateratako argazkia, Wroclaw-en. Uda urrunduz doanean, itsasoarekin oroitzeko unea da. /Argazkia: Jone Zubizarreta /Arrasate



ITSAS-IZARRA. Galizian, Sanxenxo-ko hondartzan, itsasizar bat aurkitu zuten. Argazkia atera eta berriro bere lekuan utzi zuten. /Argazkia: Irati Ugarte /Oñati



ILUNABARREAN ARRANTZAN. Arrantzaleak ilunabarrean, Britainiako Penvins herriko hondartzan. /Argazkia: Iñaki Idigoras /Oñati



BURDUNTZIA. Burduntzi bat bere lagunekin jolasean. Iru-
di bitxiak utzi zizkiguten. /Argazkia: Jon Goenetxea /Bergara



'PALESTINA ASKATU!' Check Point-ean ikus dezakegu, baita horixe berbera aldarrikatzen ari den mutikoa. /Argazkia: Gorka Morras /Arrasate

Martin Gervasoni > Aktorea

"Barre asko egin dute Elgetan, eta eskuak berotu arte txalo"

EDURNE BURGAÑA > ELGETA

Bang, bang, y somos historia antze-lanaren Euskal Herriko estreinaldia egin zuten egubakoitzean Elgetan. Aktoreen artean telebistagatik ezaguna den *Klikowsky*: Martin Gervasoni, antze-lanaren egilea ere bada. Antze-lanaz eta bere bizitzaz gehiago jakin gura izan dugu.

Saul ezaguna da Euskal Herrian, baina Martin, ez asko. Zer egiten zenuen Argentinan?

Argentinan, antzerkia eta telebista egiten nuen. Etorri aurretik, hari-idazle eta aktore bezala umore saio bat egiten nuen. Beti umorea landu izan dut. Orain hamar urte, *Bang, bang* idatzi nuen. Lan honekin, merkatuan leku garrantzitsua hartu genuen. Baina ni publizitatea egiten hasi nintzen, eta hona etorritakoan ere, horixe egin nuen.

Nola hasi zinen aktore lanetan?

Eskolan nabilela, irakasleek celebrea eta geldigaitza nintzela esaten zidaten, eta eskolako antzerki taldera bidali ninduten. 14 urterekin antzerki taldean hasi eta ez dut laga. Urtean, bat, bi edo lau obra egiten nituen. Eskola amaitzekotan nintzela, maisuak antzerkian jarraitzeko esan, eta Buenos Airesera bidali ninduen Arte Dramatikoa ikastera.

Orain sei urte etorri zinen Argentinatik...

Madrilera joan nintzen lehenengo, eta Euskal Herrira etorri nintzen kale animazioa egitera. Madrilen, *Los 80* telesaila egin nuen, Aitana Sanchez-Gijon eta Jose Coronadorekin. Hura kendu zutenean, *Klikowsky*-rako *casting*-a egin zidaten. Ordutik, sei hilabete edo gehiago Donostian ematen ditut, eta gainontzekoak, Madrilen.

Zer iruditzen zaizu Euskal Herria?

Orain lau urte etorri nintzen lehenengo bider, eta Donostiaz maitemindu nintzen. Ideala da: mendia eta hondartza leku berean. Ametsa iruditzen zait Donostia. Egubakoitzean, Elgetan, Antzokitik ikusten zena ere zoragarria zen. Jendea eta janaria ere asko gustatzen zaizkit. Jendeak harrera oso beroa ematen dit.

Zuk asmatutakoa da Saul?

Gauza asko idatzitakoak dira, eta bere ahotik esaten dituenak: ez zaiola edatea gustatzen, yoga egiten duela, oso ordenatua dela, profesionala dela... Nik proposatutakoa da ez izatea guztiz serioa, zoramen pixka bat edukitzea.

Saul-ek eta Martinek antzekotasunik badute?

Eta oso ordenatuak edukitzen ditut, eta Saul-i gustatzen zaizkion film, ordenagailu eta



Martin Gervasoni aktore argentinarra, antze-laneko maskarekin irudian.

JOSETXO ARANZABAL

gainontzeko teknologiak ere bai. Saul sentibera eta maitabera da, eta ni ere bai.

Aspaldion, zorte txarra dauka Saulek.

Hankasartzeak egiten ditu. Finantzan oso ona da, baina New Yorken ikasten ari zela, Londresera joan eta Arrate ezagutu zuen. Guztiz maitemindu, eta lana alde batera lagatzea erabaki zuen Arraterekin egoteagatik. Orain,

Eibarren lan egiten du, lantegi gorrototsu horretan. Baina nahia-go du famili giroan egotea, lanean arrakasta edukitzea baino.

Zer gertatuko da Arraterekin?

Aurreko astean, elkarrekin amaitu genuen ohean. Gaurko kapituluak, gure harremana definitzen saiatuko gara. Bi astetan, igogailu batean harrapatuta, elkar ezagutu genuen eguna gogoratu dugu.

Telesailak 5. denboraldia dauka. Arrakasta horrek harritu egin zaitu?

Proiektu bat hastean, arrakasta edukitzea espero duzu, horrek egonkortasuna esan nahi duelako. Hasieratik, ondo joango zen susmoa nuen, zuzendariak parte hartzen lagatzen dutelako. Umore handia dute eta onak dira, eta gidoigileak ere oso onak dira; kapitulu bat bestea baino onagoa egiten dute. Baina ez nuen espero hainbesteko arrakasta. Telesaila etxeetan sartu da, eta orain poz-pez nago.

Ze iruditzen zaizu euskaldunon umorea?

Euskaldunen umorea, *Vaya Semanita* eta *Klikowsky* telesailako umorea oinarri hartuta, oso ona iruditzen zait. Filmak ere oso onak daude.

Pozik Elgetako estrenuarekin?

Jendeak barre mordo egin zuen, eta eskuak ondo berotu arte txalo. Amaitutakoan, sinadurak eskatzera etorri ziren, eta ondo. Bi ikusle mota eduki genituen: batetik, obra ikustera joan zirenak eta ondo pasatu zutenak, eta bestetik, telesaila ezagutzen dutenak eta sinadurak eskatzen gertatu zirenak. Oso polita izan zen.

Zergatik Elgetan?

Antzoki oso polita delako, eta ikusleengandik benetan gertu egoteko aukera ematen duelako. Gure antze-lanean, beharrezkoa da gertutasuna: aktoreak ikusle artean ibiltzen dira une batzuetan. Baina, batez ere, Josuk, Espaloiko sozioetako batek, gure banatzailearekin harremana duelako. Barakaldo, Eibar eta beste hainbat lekutara ere joango gara.



Gervasoni aktorea, Elgetako Kafe Antzokian sinadurak egiten.

JOSETXO ARANZABAL

Sinadura asko egin zituen Gervasonik

Egubakoitzean, Elgetako Kafe Antzokian aritu zen Martin Gervasoni *Bang, bang, y somos historia* antze-lanean. Amaitutakoan, sinadura mordo bat egin zituen, bere zain geratu zirenen artean. Pozik agertu zen Gervasoni: "Argentinan bizi nintzenez ere ezaguna nintzen, baina ez hemen bezain beste. Gustatzen zait jendearen berotasuna, baina bere alde txarrak ere baditu. Parrandan, behin baino gehiago gertatu zait mozkorren bat etorri eta egoera ezerosoa sortzea".

IKASKETAK

Idazle Eskola aurten ere, Bergaran

Urriaren 1etik 11ra arte egongo da izena emateko aukera

E.B. > BERGARA

Eletan Kultur Elkartek antolatuta, Euskal Idazleen Elkartek, Bergarako UNEDeko Ikastetxe Elkartuak, eta Asmoz Fundazioaren elkarlanarekin, bosgarren urtez hasi da Idazle Eskola.

300 eskola-ordutako ikastaroa Bergaran egingo da, eta izena ematea Bergarako UNEDen edo Asmozen egin daiteke. Horretarako epea urriaren 1etik 11ra arte izango da.

Proiektu bezala sortutako egitasmoak bide emankorra egin du. Izan ere, bost urte beteko ditu aurten, eta 70 ikasle pasatu dira eskola horietatik.

BERRIKUNTZAK

Tutoretzak garrantzia hartuko du aurten. Bigarren mailako ikasleek 30 orriko lana egin beharko dute, eta horretarako, tutore baten laguntza edukiko dute ikasturte osoan zehar.

Alderdi praktikoa lantzeak ere garrantzia edukiko du. Ikasleek www.idazten.com webgunean argitaratuko dituzte lanak. Ikasle batzuek elkarlanean sortutako gunea da, eta lanak jarri eta elkarrekin komentatzeko aukera emango die.

Gainera, hilean behin, zapatuetan, *Idazleak irakurle* mintegiak antolatuko dituzte. Irakurketaren garrantzia azpimarratzeko erabiliko dute mintegia.

> GIZARTEA

Kontzertua Iturrigorriren alde Amaia Antzokian

Zapatuan, kontzertua egingo dute Arrasateko Amaia Antzokian. Iturrigorri elkarlanaren aldekoa izango da, eta 19:30ean hasiko da. Debagoieneko hiru talderen emanaldia egongo da: Arrasateko Goikobalu abesbatza eta Arrasate Musikaleko Big Band, eta Bergarako Belceblues ariko dira.

Iturrigorri elkarlana hezur-muina ematearen inguruko taldea da. Kontzertuan lortutako dirua elkarlan lanean jarraitzen laguntzeko izango da, eta bertara joaten direnen artean, ematearen gaineko informazioa banatuko dute.

ZINEMA > DONOSTIAKO ZINEMALDIA

Aitor Arregiren 'Lucio' estreinatu zuten atzo

Anarkista nafarraren bizitza kontatzen du Aitor Arregi zinemagile oñatiarrak dokumentalean

Oraingoz, kritika onak jaso ditu, Begoña del Teso aditu ezagunarena, adibidez

EDURNE BURGAÑA > OÑATI


Atzo, Zabaltegi Zuzendari Berrien sailean Aitor Arregi oñatiarrak eta Jose Mari Goenagak idatzi eta zuzendutako filma estreinatzeak ziren 21:30ean, Kurasaaleko kubo txikian. *Lucio* k Cascanteko (Nafarroa) Lucio Urtubia anarkistaren historia kontatzen du. Gaur Antigua Berrin ikusi ahal izango da, 20:30ean, eta bihar, ordu berean, Principen.

Baina, nola lortu dute han izatea? Arregik azaldu digu: "Hasieratik jarri genuen jaialdi batean estreinatze helburua. Beti da errazagoa film bat promozionatzea jaialdi batean, dokumentalak, behinik behin, izan ere, dokumentalek oso bizitza laburra izaten dute karteldegietan, eta zerbait gehiagoren beharra daukate. Dokumentala amaitzen ari

ginela, Zinemaldiko datetan sartzeara posible zela ikusi genuen eta, beraz, aurkeztera animatu ginen. Zorionez, asko gustatu zitzaion".

ZINEMALDIK, ZINEMETARA

Dokumentala Zabaltegin izateak garrantzia handia duela ere azaldu du oñatiarrak: "Zabaltegi lehiaketaz ofizialaz gain dagoen sekzio garrantzitsuena da. Bertan, era askotako filmak botatzen dituzte, Cannes, Berlinale, Venezia eta horrelako festibaletako irabazleak gain. Askotan esaten da Zabaltegin daudela Zinemaldian erakusten diren film onenak. Horrek poztu egiten gaitu. Egia esan, aukeratzeko emanez gero, nik nahiago dut sekzio ofiziala, bertan lehiaketa nagusia dagoelako, baina hor askotan zaila da burua sartzeara. Filmaren kalitateak bezainbeste jokatzen



'LUCIO' Dokumentaleko irudi bat.

LUCIO.COM.ES

du norbere izena, kontaktuak, norbere banatzaileak indarra duen... eta hori ez dago gure esku. Baina Zabaltegin erakustearekin oso pozik gaude".

Dokumentala izanda, zaila izaten da zinemetan ikustea, baina Arregik bere asmoak adiera-

zi ditu: "Dokumentala izanik oso zaila da karteldegi askotan sartzeara, banatzaile indartsu bat behar delako. Oraingoz, Zinemaldia amaitu arte itxarongo dugu, ea zortea dugun, gustatzen den eta behar den moduko banatzaile bati interesatzen zaion gure lana

mugitzea. Dena dela, hau lortu edo ez, Zinemaldiaren ondoren, Euskal Herriko zinemetan nahiko azkar erakustea espero dugu".

Oraingoz, behintzat, kritika oso onak jasotzen dabil: Begoña del Teso aditu ezagunak "oso dokumental kementsua" dela esan du.

BERTSOLARITZA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Iñigo Arzelus bergararra, estreinakoz Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Gipuzkoako Latxartegi Antzokian jokatutako kanporaketan hainbat hutsegite izan zituen

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Zapatuan ekin zion Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak bere ibilbideari. Legazpiko kanporaketan ibarreko bi ordezkari izan ziren: Egoitz Aizpuru oñatiarra, gai jartzaile, eta Iñigo Arzelus bergararra, bertsotan.

Legazpiko Latxartegi Antzokira joan zirenek egoki jantzi zuten aretoa. Taula gainean, Iñigo Arzelusek honako bertsolariak izan zituen kantu lagun eta, era berean, txapelketako arerio: Mikel Arrillaga, Xabier Sukia, Mirari Martiarena, Beñat Lizaso eta Jokin Sodupe.

HASIERAN, SERIO

Agurrean, Iñigo Arzelusek entzuzera joandako lagunak izan zituen gogoan. Izan ere, koadrilako eta bertso eskolakoak han ziren, besteak beste, eta pankartarik ere ez zen falta bera animatzeko.

Lan puntuagarriari zortziko handiko ofiziotako ariketarekin ekin zioten, eta zortziko txikian jardun zuten gero. Egunerokotasunak emandako gaiak izan zituzten bertsotarako, eta nahiko tonu serioan joan ziren bi ariketok. Hamarreko txikiko ariketetara arte ez zen saioa lehertu, baina orduan entzun zen ale politik. Aipatzekoa, Beñat Lizasoren lana, baita Sukiak eta Sodupek saioari ipini zioten umore puntua.

Kartzelako lanean, bina punturi erantzun zieten lehenengo bertsolariak. Hiruna bertso botatzeko gaia eman zien Egoitz Aiz-

puruk gero: "Lore sorta eder batekin zoaz etxera eta giltza ez da sarrailan sartzen". Emazte edo bikotearekin haserretu ostean, barkamen eske joan ziren gehienak. Entzuleen barreak Jokin Sodupek eragin zituen. Azkoitiarrak txirindulari lasterketa irabazi ostean, lore sorta eskutan, amaren zain pasa zuen denbora atarian.

Amaieran, Xabier Sukia izan zen puntu gehien eskuratu zituena, hortaz, hurrengo faserako zuzenean sailkatu dena. Iñigo Arzelusek, Gipuzkoako Txapelketan estreinako aldia izateko, txukun bete zuen bere lana; hainbat huts egin zituen, ordea, eta ezingo du txapelketan aurrera egin.

DOMEKAN, ARRASATEN

Ibarreko beste bertsolari eta bertsozaleek ere aurki dute hitzordua txapelketarekin. Arrasateko kultura etxean, domekan, irailaren 30ean, jokatuko da kanporaketa, 17:00etan. Ibarreko ordezkari Ainhoa Agirreazaldegia elgetarrak Aitor Sarriegi, Asier Iriondo, Iker Goñi, Aitzol Barandiaran eta Ander Lizarralde izango ditu lagun taula gainean.



JOSETXO ARANZABAL

Xementerio, hamar urteren ostean

Zapatu gauean, Aramaioko plazan, omenaldia egin zuten Xementerio taldekoek. Orain urtebete hil zen taldeko Iban Elejalde omendu zuten. 1987an sortu zen Xementerio, eta bertako sortzaile eta abeslarietako bat zen Elejalde. Ia hamar urte eman dute elkarrekin abestu barik, baina zapatukoa berezia izan zen. Herriko talde gehiagok ere parte hartu zuten kontzertuan: 23:30ean hasi eta 02:00ak artean, High School Guners, neska gazte talde bat—izen barikoa—, Soziedad Korrupta eta Pesticida aritu ziren eszenatokian.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Erdialdean, altzariekin. 72 m²-ko txapitula (buhardilla) eta 16 m²-ko garajea. Merkea. 659 64 67 38.

Arrasate. Zerrajerka kalean. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. 945 15 40 22.

Bergara. 50 metro koadro. Berriztatuta eta berogailuarekin. 180.000 euro, negoziagarriak. 635 71 04 55.

Bergara. 90 metro koadro. Guztiz berrituta. 100 metro koadroko ganbara. Duplexa egiteko aukera. 218.000 euro. 666 70 59 90.

Bergara. Aranerrek (Bolu) etxebizitza salgai. 75 m², 3 gela, egongela, 2 bainugela, sukaldia, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 90 metro koadro. Bizitzera sartzeko gertu. Ia guztiz jantzita. 685 72 40 30.

Bergara. Etxea salgai Zubiaurren. Berrituta, berogailuarekin eta ganbarekin. 619 41 39 72.

Bergara. Masterrek. Hiru logela eta egongela ditu. 630 32 15 07 edo 943 76 50 26.

Ezkarai. Kanpin pribatuen egurrezko etxea salgai. Partzelarekin eta txokoarekin. Igerilekua eta tenis pista. 685 70 17 92.

Arrasate. Logela bakarreko apartamentua salgai. Arimazubín. Terrazarekin eta ganbarekin (estudioa jartzeko aukera). Guztiz berritua eta prezio ezin hobean. Bizitzera sartzeko prest. 687 83 97 37.

Oñati. Apartamentua salgai. Erdialdean. Arantzazu kalean. Bi logela, sukalde-egongela, bainugela eta trastelekua. Egoera onean. Argitsua. 605 77 46 79.

Oñati. Duplexa salgai eraikitzen ari diren etxebizitzetan. Zubibarrí kalean. Lehenengo eta bigarren solairuak. Garajea ere bai. 670 85 85 41.

Oñatin etxebizitza salgai, Zubillaga auzoan. 79 m². Hiru logela, sukaldia, egongela, bainugela bat eta ganbara. Oso egoera onean eta berritua. 697 57 77 44 edo 635 71 41 39.

102. EROSI

Arrasaten etxea erosi nahi dut, prezio egokian. 606 03 80 18.

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Antigua kalean etxebizitza ematen dut errentan. Gauean deitu. 943 76 21 06.

Arrasate. Bi logelako etxea errentan erdialdean. 605 75 54 52.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da ikasleendako. Grupo San Juanen. Lau lagunendako lekua. Iluntzean deitu. 945 44 52 81.

Bergara. Arrizuriaga 13. Euskaldunei. Lau logela. 943 76 43 49.

Bergara. Ubera auzoan etxebizitza errentan ematen da. Urtarril hasiera arte. 150 metro koadro. Guztiz jantzita. 685 72 83 27.

Oñati. Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, ikasturtean zehar bakar-bakarrik. 660 40 06 75.

105. ETXEA OSATU

Aramaio. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. 699 28 99 06.

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 617 14 39 41.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garajea alokagai daukat Urribe auzoan. 625 28 72 06.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarki bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com
http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE

Esperientziadun sukaldaria behar da astelehenetik egubakoitzera arratsaldean lan egiteko. Eskolako ordutegian deitu.

607 63 37 79

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bustinzuri kalean. 638 89 78 76.

Arrasate. Garaje itxia errentan kontzezinon. 660 96 90 45.

Arrasate. Garaje plaza bat (marraduna) errentan kontzezinon. 655 71 81 84.

Arrasate. Garajea alokatzeko daukat Urkapen. 675 71 59 92.

Bergara. Ibargarai kalean. 943 76 74 19.

Bergara. San Antonio kalean garajea errentan. 21 m². 652 74 81 82 edo 943 79 13 52.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Autokarabana gordetzeko lokala errentan hartuko nuke. 665 72 02 53.

Bergaran edo Arrasaten hartuko genuke. 607 31 85 60.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aerobik irakaslea behar dugu Aramaion. Urte osorako. 665 72 62 83.

Aretxabaleta. Pertsona bat behar dugu haurrak zaintzeko. 635 75 72 57.

Arrasate. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Garagarzan. Astean hiru egunetan. 655 72 68 07.

Debagoiena. Gizona gertu zerbitzari moduan, sukaldian edota umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 659 37 41 95.

Emakumea gertu tabernak garbitu edo umeak zaintzeko, Aretxabaletan. 636 59 40 35.

402. ESKAERAK

Bergara. Lehen hezkuntzako partikularren ematen ditut. 605 74 14 04.

Arrasate. Ingeles eskolak ematen ditut. Maila guztiak. 609 94 90 01.

Aste bukaeran lan egingo nuke. 680 62 42 60.

Bergara. Etxez etxeko ile apaintzaile zerbitzua eskaintzen dut. Telefonoa: 699 26 95 74 edo 648 87 53 27.

Bergara. Gizonezkoa gertu lan-tegian, lorezain edo garbiketa lanetan jarduteko. Telefonoa: 699 15 33 16.

Bergara. Neska bat gertu lanerako, orduka. Telefonoa: 610 84 94 85.

Bergara. Orduka adineko pertsonak zaintzeko gertu. 943 76 45 81.

Debagoiena. Emakume bat gertu garbitasun lanak egiteko edo gauetan lan egiteko. Telefonoa: 619 22 48 99.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 659 37 41 95.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko 17:00etatik aurrera edo gauean. Telefonoa: 619 92 40 86.

Debagoiena. Emakumea gertu jatetxeetan eguneko menua eta karta zerbitzatzeko. Telefonoa: 652 75 95 64 edo 652 76 21 63.

Debagoiena. Garbiketa lanak egingo nituzte. Telefonoa: 628 52 34 06.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu asteburuetan lan egiteko. 605 71 09 07.

Debagoiena. Zerbitzari edo garbitzaile egingo nuke lan. 639 08 79 94.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Sei urteko neskatila bati eskola partikularrak etxean emateko norbait behar dut; egunean ordu bat. Telefonoa: 658 70 73 17.

502. EMAN

Goi mailako ingeniari industrialak klase partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Telefonoa: 630 71 35 83.

BERGARA

Hamaika tabernak sukaldari laguntzailea behar du.

943 03 45 85
669 36 65 79

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana salgai. Mclouis 650. Bidaitezko eta lotarako 7 leku. Bost urte. Beti garajea.

Egoera oso onean. 35.000 euro. Telefonoa: 695 71 46 88.

Citroen C4 Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 627 93 55 74.

Hiunday Tucson. 112 zaldi. Diesela. 2 urte eta 24.000 kilometro. Oso egoera onean. 669 54 89 16.

Jeep Cherokee 2.1 PD autoa salgai. Oso ondo dago. 3.500 euro. 655 45 07 25.

Opel Astra ISUZU 1700 TD. 114.500 km. Egoera onean. 606 94 35 50 edo 617 13 17 51.

Seat Alhambra monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi lagunentzako. Egoera onean. 653 71 04 56.

Suzuki ES 500 motorra salgai. Oso egoera onean, 19.000 km. 2003koa. Deitu arratsaldean. 630 77 50 71.

Trialeko motorra salgai. Beta Tekno 1998. 250 ZP. 1.900 euro. 699 37 15 11.

Volkswagen California tdi furgoneta zuria salgai. 102 ZP 116.000 km. 2000koa. Egoera onean. 615 72 37 74.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Errepideko bizikleta salgai, Zeus etxekoa, 56 neurrikoa. Shimano 105. Egoera onean dago. 400 euro. Telefonoa: 667 08 93 09.

Eskusoinuak salgai. Bat handia, tekladuna eta bestea txikia, botoiduna. Telefonoa: 652 72 01 15.

Izozkailua. Hiru kaxoi. Indesit markakoa. Berria. 637 52 89 83 edo 943 76 35 37.

Sutarako egurra salgai. Beheko surako prestatua. Bi kamioi. 945 44 51 11.

Zaldi bat salgai. Arabiar arrazakoa. Bi urte ditu. Paperak ditu. 647 64 02 81.

806. GALDU

Bergara. Bartzelona taldeko saskibaloiko baloia galdu nuen Espoioian. Izena eta telefonoa idatzita ditu. 943 76 00 99.

LAN ESKAINTZA

Fundazio txiki eta berri batek **PROFESIONAL BAT** eta **MARKETIN ZUZENDARI BAT** behar ditu honako arloetarako:

- Webguneen edukia garatzeko
- Inkestak aztertu eta prestatzeko
- Bezeroekin bilerak beharrezan aztertzeko
- Marketina
- Proiektuen kudeaketa orokorra

Jornada osoa edo erdia.
Interesatuok 628 70 36 16 telefonora deitu
edo bidali curriculum agoikoetxea1@euskalnet.net helbidera



EUSKAL HERRIA SIGLO 21 FUNDAZIOA
www.euskalherriasiglo21.org

LAN ESKAINTZA PUBLIKOA

ZERBITZU ETA OBRETAKO BRIGADARAKO

Aldi baterako langilea hautatzeko eta lan poltsa sortzeko deialdia.

BALDINTZAK: OHO, LH1 edo titulu baliokideren bat izatea.
OINARRIAK: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke:
www.antzuola.com

Interesdunak aurkeztu behar dira
Irailaren 28an goizeko 9:30ean Udaletxean probak egiteko.



ANTZUOLAKO UDALA

Alkatea

Zorionak irabazleoi!

Gaur, irailak 24, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuzan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

144. zozketako saria

Harpidedun ez bazara...

EUSKALTELEKO bi kamiseta.
- M. Asun Pagoaga Amozarrain (Arrasate)
- Zigor Lasagabaster (Aretxabaleta)



XABIER ARREGIren
'HERRIA, HIRIA, NAZIOA'
(Pamiela argitaletxea) bi liburu

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
18 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Txakurrak,
ipuinak eta
perrexila

Kintada izan dugu aste bukaeran; 80an jaiotako koen bazkaria. Urtetik urtera gero eta jende gutxiago joaten gara, baina indarrak ez du behera egiten. Jota fuego ibili ginen zapatuan kantuan, karaokean. Eguraldi txarra egiten badu, badakizue zergatik den. Gainera, Master mailako Espainiako Itzuliko etapa bat gure kinto batek irabazi zuela enteratu naiz. Zorionak, **Altube!**

Bestalde, Aramaion, zapatuan, ipuin kontalarien artean, baserritar jantzita ibili ziren hainbat lagun. Ipuin

"Zubikoa kiroldegan, Argiñanoren semea ibili zen eskubaloian jokatzin"

batetik irtendakoak ematen zuten, baina, ez... ezkontza batekoak ziren. Garai batean egiten ziren bezalako ezkontza egin zuten Aramaion.

Oñatin, San Migelen aurreko aste bukaerak gogorak izaten dira. Artzain txakur txapelketan, esaterako, jende mordo bildu zen. Esan digutenez, baina, beste urte batzuetan baino jende gutxiago egon da; mendizale asko Aizkorriko maratonia ikustera joan delako izan omen da. Oñatin bigarren sailkatu zen **Fidel Alonso** arabarrak bazkaldu bezain azkar alde egin zuen, Amurrion beste txapelketa bat zuen-eta. Zubikoa kiroldegan, berriz, **Argiñanoren** semea aritu zen eskubaloian: **Martin Argiñano**. **Karlosek** besteko txispa izango ote du Martinek?

hildakoak

- **Kruz Abarrategi Leaniz-Barrutia.** Eskoriatzan, irailaren 21ean. 89 urte.
- **Juan Manuel Herrero Lainez.** Bergaran, irailaren 16an. 50 urte.

asteburuko albuma



Vespa eta Lambretta bilkura. Mugikortasun Astea eta Autorik Gabeko Egunaren aitzakian, aste bukaeran Salbador eta San Roke kaleak ibilgailuendako itxi dituzten arren, motor hotsa izan da nagusi Elgetan. Lambretta eta Vespa motorren zaleak txoko askotatik iritsi ziren domekan Elgetara. Goizean barrena, pixkanaka, plazan elkartu eta ibilaldia egin zuten Elgeta, Elorrio, Atxondo, Axpe, Elorrio eta Elgetan barrena. Arratsaldean, abilezia erakustaldia egin zuten.



Algara ludoteka. Izena emateko epea zabalik dagoenez, herriko ume guztiei aukera eskaini zieten joan den egunetan Aretxabaletan Algara ludoteka gertutik ezagutzeko, gustuko badute, aurrerantzean ere joateko modua izan dezaten. Egubakoitz arratsaldean Haur Hezkuntzako 3. mailakoek marakak egin zituzten lehenengo, eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoendako, lan-kidetza jolasak antolatu zituzten.

Haur danborrada. Zilarrezko ezteiak bete ditu aurten Oñatiko haur danborradak, eta zapatuan, elkarrekin banderadunek, inudeek, sukaldariek, danbor eta kupel-joleek eta mozorrotutako hainbat umek hartu zituzten Oñatiko kaleak danbor hotsean. 25. urteurrenerako, karroza berezia gertatu zuten: tarta handi bat, kandela eta guzti. Umeen eta senitartekoen pozak eta ilusioak bat egin zuten, Udal Musika Bandak doinu lagundutako jai koloretsuan. Plazara iritsitakoan, danborradaren antolatzaileek udaletxeko balkoitik danborradako parte-hartzaile eta laguntzaile guztiei eskerrak eman zizkieten. Baina esker berezia jaso zuen Pedro Mari Igartuak, urte luzeetan haur danborrada antolatzen eta bultzatzen egindako lanarengatik. Bertsoz eman zizkieten eskerrak, eta txalo zaparrada handia ere jaso zuen oñatiarren partetik.



Sagardo Eguna. Bosgarren Sagardo Eguna ospatu zuten domekan Aramaion. Hamabost sagardogileren eskutik, zapore eta mota guztietako sagardoa dastatu zuten eguerdian ekitaldi nagusira joan zirenek. Edana, noski, jateko lagunduta: herriko gazteek egindako taloak eta bertako artzainen gazta jateko aukera izan zen. Plazako elkartean egin zuten sagardogileek bazkaria eta, bazkalosteko giro alaian, oroigarri modura, argazki bana eman zieten sagardogileei.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro. GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.**

zorion agurrak



ARRASATE
Irantz Arbizu
Irailaren 18an, 3 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ARRASATE
Uhaiz Villar
Irailaren 18an, 2 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ARAMAIO
Jone Inuntziaga
Irailaren 19an, 25 urte. Zorionak, potxola! Lankideen partetik.



ARRASATE
Mateo Iturbe 'Santamaña'
Irailaren 20an, 88 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Izaskun Gorosmendi
Zorionak eta urte askotarako, Izas! Pa haundi-haundi bat zuretako!



ARRASATE
Carmen Lagunilla
Irailaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak bihotz-bihotzez familia guztiaren partetik. Gora zu eta 2007!



ELGETA
Pello Larrea
Irailaren 22an, urtebetetzea. Zorionak etxeko partetik.



ARRASATE
Marina Abarrategi
Irailaren 23an, 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



BERGARA
Beñat Elkorobereibar
Irailaren 23an, 6 urte. Zorionak aitita, amama eta Eliren partetik.



ELGETA
Ainhoa Zeziaga
Irailaren 23an, urtebetetzea. Zorionak etxeko partetik.



ARAMAIO
Leire Vilches Beitia
Irailaren 24an, 6 urte. Zorionak! Ainhoa, Uxue, aita-txo eta amatxoren partetik.



ESKORIATZA
Oihana Ezeiza
Irailaren 24an, 3 urte, Zorionak, Enaitz, Martxel eta Eiderren partetik.



BERGARA
Saioa Leturia
Irailaren 24an, 3 urte, Zorionak etxeko partetik.



ARRASATE
Garazi Larrea
Irailaren 24an, 9 urte. Zorionak! Familiaren partetik.



ESKORIATZA
Dorleta Ezeiza
Irailaren 24an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat. Oihanaren partetik.



BERGARA
Martin Lete
Irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak etxeko eta, bereziki, birramona Rosarioren partetik.



ARRASATE
Mertxe Agirreurreta
Irailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, ama! Etxeko partetik.



BERGARA
Martxel Olabarrieta
Irailaren 27an, 3 urte. Zorionak, Enaitz, Oihana eta Eiderren partetik.

BERGARA
Manu Iztueta, Izaskun Iztueta eta Mikel Arraio
Irailaren 26an urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat, Antxon partetik.



ARETXABALETA
Maider Gonzalez
Irailaren 27an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Kepa Aranburu
Irailaren 27an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Iñigo Agirre
Irailaren 27an, 8 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko partetik.

OÑATI
Olaia eta Julen Otero Aia
Irailaren 27an eta 28an, urtebetetzea. Zorionak eta ondo pasa zuen urtebetetzean eta Oñatiko jaietan. Muxu handi bana aita-txoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Oskitz Lagunilla
Irailaren 27an, 2 urtetxo beteko dituzu! Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Iزارo Hernandez Urtzelai
Irailaren 28an, urtetxo bat. Zorionak etxeko partetik!



BERGARA
Rosario Iñurritegi
Irailaren 29an, 92 urte. Zorionak familiaren eta, bereziki, birloba Martinen partetik.



ARETXABALETA
Jokin Larrinaga
Irailaren 30ean, San Migeletan, 4 urte. Zorionak eta ondo pasa urtebetetze egunean. Aita-txoren, amatxoren eta Ainhitzeren partetik.

ZORIONAK!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaziozuzusteko ederra!

jaiotakoak



Garazi Nieto Gorosabel
Arrasate > 3,580 kilo. Irailaren 16an. Gurasoak: Ainhoa (Arrasate) eta Luis (Arrasate). Argazkian, Garazi jaioberria, ahizpa Iraiarekin.



Oihan Egurza Gutierrez
Aretxabaleta > 2,775 kilo. Irailaren 16an. Gurasoak: Mari Carmen (Aretxabaleta) eta Juan Mari (Aretxabaleta). Argazkian, amarekin eta arreba Albarekin.



Oskitz Azkarateaskasua Alferez
Bergara > 3,300 kilo. Irailaren 16an. Gurasoak: Mari Carmen (Bergara) eta Jesus Mari (Bergara). Argazkian, aita eta anaia Enaitzekin.



Aitzol Rodriguez Saldaña
Arrasate > 3,050 kilo. Irailaren 21ean. Gurasoak: Esti (Arrasate) eta Julio (Oñati). Argazkian, ume jaioberria, gurasoen besoetan.

BABESLEA



Aitor Biain > Ganbara Txikiko zuzendaria

"Herri Eguneko taloa sakratua izaten da"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Oñatiko Ganbara Txikiko zuzendaria da Aitor Biain oñatiarra. Zumarragan eta Bergaran ere irakasle lanak egiten ditu, eta Gasteizera, musika ikastera joaten da. Baina musika ez da bere zaletasun bakarra.

Beste zer gustatzen zaizu, bada, musikaz gain?

Liburuak irakurtzea, adibidez. Hala ere, boladaka egiten dut hori; udan bost irakurri ditut, eta urtean barrena, bi bakarrik. Bestalde, bidaiatzea eta telebistako serieak ikustera ere gustatzen zait.

Ikertzaileenak edo medikue-nak dira serie guztiak. Denak ikusten dituzu?

Bai, egia da, baina ahal ditudan guztiak ikusten ditut. Amerikarrak zein espainiarrak gustatzen zaizkit, gainera.

Nagikeria izan duzu ikasturte berria hasteko?

Ez, nik ez dut opor osteko depresiorik izaten. Energiarekin hasi dut ikasturte hau ere, egiten dudana gustukoa dut-eta.

Diskoak Internetez erosteko ohitura ei duzu.

Bai, eta batzuetan lau erosten ditut batera.

Gidatzen duzunean ere musika entzuten duzu?

Asko ibiltzen naiz autoan atzera eta aurrera, eta ordu horiek aprobetxatzen ditut erositako diskoak entzuteko. Normalean, abesbatzek kaleratutako lanak izaten dira, baina ez denak.

Etxeko erosketak ere Internetez egiten dituzu?

Bai, eta batzuetan lau erosten ditut batera.

Ni ez naiz etxeko erosketez arduratzen. Egia esan, badut gogoia neure etxebizitza izateko.

Ze egiten duzu kontzerturik ez duzun asteburu baten?

Gustatzen zait mendira edo egun pasa nonbaitera joatea. Baita lo egitea ere, baina eguna aprobetxatzen saiatzen naiz.

San Migel eta Errosario jaientarako prest?

Bai. Errosario biharamun egunerako erosi dugu mozorroa dagoeneko. Orain arte, geuk egin dugu, baina, aurtan, errazena egitea pentsatu dugu. Herri Eguna ere gustatzen zait; egun horretako taloa sakratua izaten da.

Nola zainduko duzu ahotsa?

Nik ez dut erretzen, eta hori bada abantaila bat. Edari hotzek ere ez didate kalterik egiten; bai, ordea, asko hitz egiteak. Horregatik, ohitu naiz *play back* egitea tabernetan: abestiak ez ditut ozen kantatzen. Bestalde, eztarria motel dudala sentitzen badut, arrautza jaten dut gordinik, gatz pixka bat botata.



MUSIKA Aitor Biain musikazale handia da.


ARANTZAZU EZKIBEL

TEST-A

Herria: Oñati. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Ingeniaritza informatikoa nabil ikasten. Urriaren 9an aurkeztuko dut proiektua. **Zaletasunak:** Bidaiatzea, telebistako serieak ikustea eta musika. **Irakurtzen arizaren liburua:** *Memorias de una geisha*. **Kontzertu bat:** Askotara joaten naiz, baina ez kontzertu erraldoietara, txikiak baizik. **Irratia:** Asko entzuten dut, musika batez ere. Ikaragarri gustatzen zait musika, bistan da, ez?

www.goiena.net

Jostailuek, salgai ipintzerako, behar adina segurtasun kontrol pasatzen dute?



biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Kuriketan


Ormaiztegiko gurasoen etxean nengoela, leihotik begira, haur talde bat jolasean ikusi dut gaua iritsi bitartean. Hura parte-hartzea eta jolasa! Beharbada, zuetako askok horretara jolas egin zenuten txikitan, gaurko ume eta gazteak bakarka jolasean jartzen dituen tresna elektronikoko horiek asmatu baino lehen. Akordatzen al zarete uda partean, herriko plazan nola jolasten genuen kuriketan eta harrapaketan? Kuriketan norbait gelditzen zen zaindari ehun kontatu arte beste lagunak ezkutatzaren bitartean. Ondoren, lagunak bila ateratzen zen oinarritzeko lekua defendatzen zuten bitartean. Herriko



koadrilako lagunok biltzen ginen balkoitik amak deitu bitartean udarako gau zoragarri haietan. Uda arratsalde luzeak motz geratzen ziren, aspertzea zer zen ezagutu gabe.

Herriko gazteak halako jolas kooperatibo horietan jolasean ikusi nituenean umetako udak etorri zaizkit burura. Kirolak gure arteko harremana eta jolasa bideratzen ditu, baina gezurrezko mundu birtual horretan murgiltzen gaituzten trikimailu horiek debekatuta egon beharko lukete herriko plazetan. Plaza jolasera-ko tokia baita, harremanak eta elkarriketarako gunea. Lagunak egin eta zaintzeko lekua.

eguraldia



MINIMOA

+14

MAXIMOA

+26

Goizean, eguraldi atsegina eta argia egongo da, eta arratsaldean, euria etorriko da. Haizea ipar-mendebaldetik finkatuko da.

www.euskalmet.euskadi.net

Anari Esne beltza Gose Erraldoiak eta buruhandiak Rauxa Petti EH Sukarra Trikizio Aitzol Mujika Anje Duhalde Bergarako Orfeoi, Aritzeta abesbatza eta Musika Eskolako instrumento joleak Sagarroi Nour Mulanbo Samar Fly Shit SKT sekuentzia Kauta Pantxoa eta Peio Belceblues Emon Umeentzako puzgarriak Abarka dantza taldea Tapia eta Leturia & Jokin Betizuak Txan magoa Tailerrak Kale animazioa Futbolinak Moises Azpiazu Dantza taldea Trapatoni Circus Band Kiki Koko Moko Musiraka Euskaraokea Bergarako Txistulariak Bergarako Udal Musika Banda...

ARGI DAUKAGU

KILOMETROAK 07

Aranzadi Ikastola - Bergara - Urriak 7
www.kilometroak.net

